LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

UDALAREN OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUAK
alkate-udal burua
IÑAKI AZPIROZ BELDARRAIN
zinegotziak
JONE ZUBELDIA ALTUNA
ENEKO ARTEAGA USANDIZAGA
ITZIAR SAENZ DE OJER MARTINEZ
IRAITZ OLAETXEA BALERDI
SABINO SAN SEBASTIAN MURUA
AITZOL ZUBELDIA IBARLUZEA
IDAZKARIA
ANA JESUS ZABALA GARMENDIA

Lizartzan, 2021eko urtarrilaren 18an, arratsaldeko 19:00etan, eta Udaleko alkate udalburua, Iñaki Azpiroz Beldarrain izanik, Udaletxeko Bilkura Aretoan bildu dira alboan adierazitako zinegotziak.

Bilkuraren fede ematen du Ana Jesus Zabala Garmendia, udal-idazkari-kontu hartzaileak.

Bilkurari hasiera eman dio presidenteak, eta hauek izan dira jorratutako

GAIAK

LEHENA. AURREKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

BIGARRENA. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Udal honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearren, eta Tokiko Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Udalburuak Batzarrari jakinarazi dizkio ohiko azken bileraz geroztik hartutako erabakiak:

2020/258 Dekretua 2020/259 Dekretua

Jakinaren gainean gelditu da Batzarra.

HIRUGARRENA.- ZIKLO INTEGRALAREN KUDEAKETA, AGUAS DE GIPUZKOA-GIPUZKOAKO URAK S.A.ren ESKU UZTEA

2020ko abenduaren 14an, Alkatetzak ZIKLO INTEGRALAREN KUDEAKETA zerbitzu publikoaren kudeaketa GIPUZKOAKO URAK-AGUAS DE GIPUZKOA S.A -ren esku uzteko espedientea hasi zuen.

2020ko abenduaren 21ean, Kontu-hartzailetzak enkargatuko den jarduera zehatzaren aldeko txostena egin zuen, eta jarduera hori hartuko duen organo edo erakundeak aurrekontua erabilgarri duela adierazi zuen.

2020ko abenduaren 14an, egingo den enkargua jasotzen duen hitzarmena idatzi zen (espedientearekin batera doa hitzarmena).

Horregatik guztiagatik, Idazkaritzaren 2021eko urtarrilaren 11ko txostena ikusita, eta apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.2.p) artikuluan xedatutakoaren arabera, Udalbatzak honako erabaki hau hartu du gehiengo absolutu legalarenaldeko botoekin, Informazio Batzordeak proposatuta:

ERABAKIA

Lehena.- 2021eko apirilaren 1etik aurrera uraren ziklo osoa, Lizartzako Udala bazkide den, Gipuzkoako Uren Partzuergoarekin, eta honen menpeko beste elkarteekin batera kudeatzea.

Bigarrena.- “Uraren Ziklo Integraleko Zerbitzuaren Ordenantza Arautzailea” deiturikoa onartzea, eta Gipuzkoako Uren Partzuergoari egoki ikusten duenean eguneratzeko edo aldatzeko baimena eman; honela dio Ordenantza Arautzaileak:

URAREN ZIKLO OSOARI DAGOKION ZERBITZUA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

SARRERA

2021eko urtarrilaren 18an, udalbatzak erabakita,, Toki-jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Oinarrizko Legearen arabera, herriko uraren ziklo osoa, hau da, lehen mailako eta bigarren mailako saneamendu eta ur hornidura sareen kudeaketa osoa Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren esku lagatzea erabakita, baita behar diren inbertsioak egitea ere. Helburua hori izanik, LIZARTZAko Udalak, bere titularitatepekoak diren ur-emakida, ur emarien gozamen guztiak, azterlanak, proiektuak, sareak, instalazioak eta partzuergopeko zerbitzuak eskaintzearekin lotuta

dauden gainontzeko baliabide guztiak, ekarpenez Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren esku uztea erabaki zuen.

Hitzarmen hartan hauxe ezartzen zen: «Indarrean dagoen legeriaren arabera, Ur Kontsortzioak, Hitzarmen honen xede diren helburuei eta zerbitzuei datxezkien ahalmenak, eskumenak, aginpideak, eskuduntzak, eskubideak eta obligazio guztiak izango ditu. Zehaztearren, Kontsortzioaren esku utzi zen uraren ziklo osoaren tasak kudeatzeko, kitatzeko eta biltzeko ahalmena.

Kontsortzioak uraren ziklo osoari dagokion kudeaketa bere gain hartu duenez, Ordenantza egokitu beharra dago, zerbitzuaren kudeaketari dagozkion alderdietan nahiz eta zerbitzuarengatik aplikatu beharreko tarifetan. Udalak, Kontsortzioak proposatzen zion Ordenantza -orain arte esandakoa jasoko lukeena- onartzeko konpromisoa hartu zuen. Horren ondorioz, Zerbitzuaren tasei dagokienez, XIII. Atalburuak eta Eranskinak, tasa-ordainarazpenerako eta tasak egunerako erabili behar den tarifa-sistema jasotzen dute, 2/2004 Foru Arauaren 7.2 artikuluak ezaritakoaren arabera lan hori Gipuzkoako Ur Kontsortzioak berak egingo baitu.

Orain arte azaldu denaren ildotik, ondoren, Uraren Ziklo osoaren Zerbitzua Arautzeko Ordenantzaren artikuluak eta 2021eko apirilaren 1etik aurrera indarrean sartuko diren tarifak –Gipuzkoako Ur Kontsortzioak onartu dituenak– hitzez-hitz transkribatzen dira.

GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOKO UREN ZIKLO INTEGRALAREN ZERBITZUAREN ORDENANTZA

I. ATALBURUA: ARAU OROKORRAK.

1. artikulua. Xedea.

Ordenantza honen xedea da Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren eta Uren Zerbitzuko abonatuen arteko harremanak arautzea, Gipuzkoako Ur Kontsortzioa zerbitzuaren titularra den udaletan, bertan zehazten direlarik alde bakoitzaren oinarrizko eskubideak eta betebeharrak.

Gipuzkoako Ur Kontsortzioa toki erakunde bat da eta bere helburuen artean, bere iharduera eremuaren barruan ur hornidura eta saneamendu zerbitzuak eskaintzea jasotzen da, horrela nahi duten udaletan, beti ere, une bakoitzean indarrean dagoen Estatuko eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko legedian jasotzen diren xedapenen arabera.

Gipuzkoako Ur Kontsortzioak aurreko pasartean aipatzen diren zerbitzuak erregimen zuzenean kudeatzen ditu Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A. Sozietatearen bidez.

Ordenantza hau Gipuzkoako Ur Kontsortzioak Uraren Ziklo Integrala kudeatzen duen udaletan eskaintzen dituen hornidura eta saneamendu zerbitzuei aplikatuko zaie izaera orokorrez.

2. artikulua. Arau Orokorrak.

Edateko uraren etxeko hornidura zerbitzua Ordenantza honetan xedatzen denari egokituko zaio, bai eta "Eraikuntza-Kode Teknikoa" 314/2006 Errege Dekretuari eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioak onarturik dauzkan, eta aurrekoekin kontraesanean ez datozen, gainontzeko Ordenantzetara egokituko ere.

Zerbitzua eskaintzean irabazasmoa baztertuta geratzen da, eta oreka ekonomikoari eutsi behar zaio, legez onartutako eta autofinantzaketa ahalbideratzen duten tarifak aplikatuz.

3. artikulua. Eskuduntzak.

Ur horniduraren emakida, bere modalitate desberdinetan, eta isurketen hustuketa eta trataera Gipuzkoako Ur Kontsortzioari bakarrik dagokio eta Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A. izango da gainontzeko lanak bere kargura kontratatuko dituena dagokion Hornidura Kontratuaren bidez eta, halaber, zerbitzua burutzeko baldintzak arautuko ditu.

Gipuzkoako Urak ez da inoiz euri uren instalakuntzen mantenuaren arduradun izango, ardura hau Udaletxe bakoitzarena izango da.

Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren, Gipuzkoako Urak, E.A. (GUSA)-ren bitartez, ahalmenak izango dira:

1. Edateko uraren hornidura eta sanemanedu obren proiektuak ikuskatzea.

2. Hirigintza planei eta urbanizazio proiektuei buruzko txostenak ematea eta, hala badagokio, behar diren aldaketak bultzatzea, dagokion area, sektore, poligono eta gestio unitateko ur banaketa eta saneamendu sareei dagokienez.

3. Sare orokorretatik hornitu behar diren eraikinetara ipinita dauden edo ipini daitezkeen beharrezko instalazioak eraikitzea, zabaltzea, ustiatzea eta mantentzea,

Ordenantza honen arabera hori guztia GUSA-ri baldin badagokio betiere. Gauza bera saneamendu instalazioei dagokienez, Ordenantza honetan eta indarrean dagoen gainerako araudian aurreikusten diren baldintzetan.

4. Toki entitate batek edozein urbanizazio hartu aurretik, hornidura eta saneamendu sareei buruzko txostena ematea, nola eta sareak zerbitzuak berak egin ez dituen.

5. Hornidura eta saneamendu zerbitzuak erabiltzaileei ematea, Ordenantza honen eta indarrean dagoen gainerako araudiaren arabera.

6. Hornidura eta saneamendu zerbitzuetan proiektatutako obra berriei edo jarduera aldaketei buruzko txostena ematea eta haiek ikuskatzea.

7. Hornidura eta/edo saneamendu sare publikoekiko lotura berriei buruzko txostena ematea eta haiek tramitatzea, gainbegiratzea eta, behar izanez gero, egikaritzea, lan horiek ekar ditzaketen lan administratiboak eta ekonomikoak eginez.

8. Tramite administratiboak, teknikoak eta juridikoak burutzea, erabiltzaileekiko kontratu harremanak formalizatzeko eta kontrolatzeko.

9. Hornidura eta/edo saneamendu zerbitzuak bere garaian fakturatzea eta kobrantza ziurtatzea.

10. Hornidura eta/edo saneamendu zerbitzuen inguruan aurkeztutako demandak, kexak eta erreklamazioak artatzea, tramitatzea eta erantzutea.

4. artikulua. Abonatua.

Ordenantza honetako ondorioetarako, abonatua izango da finka, lokal edo industriaren erabilera eskubidea izanik, ur edangarriaren hornidura kontratatuta daukan titularra edo bere ordezkaria.

5. artikulua. Erakunde Hornitzailea.

Ordenantza honetako ondorioetarako Erakunde Hornitzailea Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A. izango da.

6. artikulua. Estaldura Ingurua.

Ordenantza hau Gipuzkoako Ur Kontsortzioak Uraren Ziklo Integrala kudeatzen duen ulaletan eskaintzen dituen hornidura eta saneamendu zerbitzu guztiei aplikatuko zaie izaera orokorren.

II. ATALBURUA: GIPUZKOAKO URAK-AGUAS DE GIPUZKOA, S.A. ETA PERTSONA ABONATUEN BETE-BEHARRAK ETA ESKUBIDEAK.

7. artikulua. Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ren Betebeharrak.

Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-rentzako betebehar bereziak erakar ditzaketen eta Araudi honetan arauketa bereziko gai izan daitezkeen egoerataz aparte, honako betebehar hauek izango ditu:

* Izaera orokorrekoak: Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k eskura dituen baliabideekin eta bere eskuduntza eremuaren barne, edateko ura abonatuen hartulekura eramateko betebeharra dauka, beti ere, Araudi honetan eta aplikagarri diren gainontzeko xedapenetan finkatzen diren baldintzen arabera.

* Ura hornitzeko betebeharra: 6. Artikuluan definitzen den Estaldura inguruaren barne, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k eskatzen duen oro uraz hornitzeko betebeharra dauka eta uraren hornidura zabaltzekoa eskatzen duen amaierako pertsona abonatu orori; beti ere Araudi honetan eta indarrean dauden erregelamendu-arauetan jasotzen diren baldintza tekniko eta ekonomikoen arabera.

* Aurreko pasartean aipatzen diren zerbitzuak emateko betebeharra, azpiegitura eta instalazioak gauzatzeko eta garatzeko Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k erabaki ditzakeen inbertsio planetan finkatzen diren epeen baldintzapean egongo da.

* Uraren edangarritasuna: Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k, indarrean dauden osasun xedapenen arabera, ura pasabide-giltzara bitarte, eraikinaren barneko instalazioa hasten den puntura bitarte, edangarria izango dela bermatzeko obligazioa dauka.

* Instalazioen artapena: Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k hornidurarako eta saneamendurako behar diren sare eta instalazioak bere kargura zaintzeko eta artatzeko betebeharra dauka.

* Zerbitzuaren erregulartasuna: Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k uraren horniduraren erregulartasunari eusteko betebeharra dauka. Nolanahi ere, Ordenantza honetan jasotzen diren balizkoetan ezingo zaizkio zerbitzuen etenaldiak egotzi.

* Presazko deiak: Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k deiak jasotzeko zerbitzu iraunkor bat izan beharko du, pertsona abonatuek eguneko edozein garaitan matxuren berri eman edo larrialdietan informazioa jaso ahal izan dezaten.

* Erreklamazioak: Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k idatziz egiten diren erreklamazioei hirurogei hamar egunetako epearen barne erantzuteko betebeharra dauka.

* Tarifak: Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k finkatuta dauzkan hornidura mota bakoitzari eta dagokion Ordenantzak, une bakoitzean, Gipuzkoako Ur Kontsortzioak onartuta, erabakitzen dituen tarifak aplikatzeko betebeharra dauka.

* Kontsumoa: Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k zerbitzuaren abonatuen artean uraren aurreztea eta arrazoizko erabilera suztatu beharko du.

8. artikulua. Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ren Eskubideak.

Egoera berezien ondorioz Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ri egotz lekizkiokeen beste eskubide haietaz gain, honako eskubide hauek izango ditu izaera orokorrez:

* Barneko instalazioak ikuskatzeko: Indarrean dagoen legediak Administrazioko Organo desberdinei ematen dizkien eskuduntzen kalterik gabe, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k, Ordenantza honetan finkatzen diren mugen barne eta edozein arrazoi tarteko zerbitzuan egon edo erabiltzen diren horniduraren bidez lotutako instalazioak ikuskatzeko, berrikusteko eta kontrolatzeko eskubidea dauka.

* Faktura bidezko kobrantza: Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k, abonatutako pertsonari luzatzen dizkion fakturak edo egiten dizkion karguak erakunde lankideetan kobratzeko eskubidea dauka.

9. artikulua. Abonatuen Betebeharrak.

Ordenantza honetan eta abonatutako pertsona batentzat betebehar bereziak sortaraziz, arauketa bereziko gaiak izan daitezkeen egoera haietatik aparte, honako betebeharrak izango ditu izaera orokorrez:

* Ordainagirien eta fakturen ordainketa: Jasotzen duen zerbitzuaren ordainetan, abonatutako pertsona orok, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k une bakoitzean onartuta dauzkan prezioen arabera egiten dizkion karguak ordaintzeko betebeharra izango du, bai eta zerbitzu berezietatik eratorririk, dagokion Ordenantza finkatzen dituen prezioak ordaintzeko ere.

* Uraren kontsumoari dagokionean, ordaintzeko betebehar hori zabaldu egiten da, kontsumoaren arrazoiak itukina, matxura edo barneko instalazioen eraikintzan edo artapenan izan daitekeen edozein akatsen ondorio bada ere.

* Fidantzen ordainketa: Hornidura kontratua sinatzea eskatzen duen pertsona orok, Ordenantza honetan xedatutakoaren arabera, dagokion fidantza jartzeko betebeharra dauka.

* Instalazioen artapena: Uraren Hornidurako Eraikuntzako Kode Teknikoak gai honen inguruan xedatzen dena ahaztu gabe, abonatutako pertsona orok bere zerbitzurako instalazioak modu zuzenean erabili behar ditu eta, hala, instalazioak modurik onenean zaintzeko beharrezko neurriak hartuko ditu, ur kutxagarriak sarera itzul ez daitezen zainduko du eta, horretaz gainera, kontagailua eta hartuneko instalazioak ez direla maneiatu bermatzeko dauden zigiluak berean mantendu eta irakurketa errazteko baldintzarik onenak jarriko ditu.

* Instalazioen ikuskaritzarako erraztasunak ematea: Hornidura eskatzen duen pertsona orok behar diren elementu guztiak bere jabetzan jartzeko erraztasunak Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ri emateko obligazioa dauka, bei eta, hornidurarekin lotutako egiaztapen guztiak egin ditzan. Erakunde horrek baimendutako eta egiaztatzen duen pertsonalari sarbidea emateko ere.

* Gipuzkoako Urak-ek abonatuari kontagailua irisgarria izatea eskatu diezaioke, aldatu edo irakurketa hartu daitekeen altueran dagoena, tresna laguntzailerik gabe eta Gipuzkoako Urak-eko langileentzat arriskurik suposatu gabe. Hau honela izan ezean, Gipuzkoako Urak-ek abonatuari instalakuntza aldatzea eskatu deizaioke, aldaketa hau abonatuaren kontura izango delarik 45. artikuluan aipatzen den moduan. Abonatuak kontagailua irisgarria izan behar du, irakurri edo aldatu ahal izateko garaiera batean, tresna osagarririk gabe eta Gipuzkoako Urak-eko langileentzat arriskurik eragin gabe. Zirkunstantzia horiek gertatzen ez badira eta Gipuzkoako Urak-ek hala eskatzen badu, instalazioa aldatu beharko du, eta aldaketa hori abonatutako pertsonaren kontura izango da, 45. artikuluaren arabera.

* Era berean, eta kasu bakoitzean egokienak diren neurketa ekipoak eta gainontzeko elementu osagarriak jartzeko behar diren lokalak, esparruak edo kutxetak erabiltzeko eskubidea Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ri lagatzeko obligazioa dauka.

* Beste hirugarrenganako desbideraketak: Abonatutako pertsonek ezingo diote, inola ere ez, urik beste hirugarrengo pertsonei lagatu, doan zein kopuru baten ordainetan, ez denbora jakin baterako ez izaera iraunkorrez. Eta bai berak eta bai bere menpeko norbaitek horniduran egin dezakeen edonolako iruzurraren erantzule izango da abonatutako pertsona hori.

* Matxuren berri ematea: Abonatutako pertsonek, denen eta bere mesederako, banaketako sare nagusian izan edo bere iritzian izan daitekeen edozein matxura edo hondaketaren berri eman behar dio Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, E.A.-ri.

* Erabilerak eta horniduraren irismena: Abonatutako pertsonek kontratatutako urari dagokion erabilera emateko obligazioa dauka.

* Era berean, kontratatutako horniduran gehikuntzarik edo hartzaileen kopuruan aldaketarik ekarriko lukeen instalazioetako edozein aldaketaren berri eman eta Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ren baimena jasotzeko obligazioa daukate abonatuek.

* Aipaturiko arrazoi hori tarteko neurketarako aparailuren bat aldatu beharko balitz, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, E.A.-k aldatzeko baimena jasotzen duela iritziko da, beste ezein baldintza edo izapidaketarik bete behar gabe eta sortzen diren gastu guztiak abonatutako pertsonaren konturakoak izango dira.

* Bajaren berri ematea: Uraren hornidura zerbitzuan baja eman nahi duen pertsona abonatuak bere nahiaren berri Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, E.A.-ri emateko obligazioa dauka eta, beti ere, hornidura zerbitzuari emaiera eman nahi dion data adierazi beharko du.

* Titularra aldatzen edo kontratuaren subrogazioa egiten denean, aldatzen den data jakinarazteaz gainera, egun horretan kontagailuaren irakurketak ematen duen emaitza aditzera emango da.

* Ur-emariaren berreskuratzea: Ura energia eroale gisa erabiltzen dituzten hozketa ekipoak edo izozketa instalazioak edo/eta beren instalazioetan igeritegiak dituzten pertsona abonatuek, birziklapenerako ekipoak jarri beharko dituzte beren instalazioetan, beti ere, Eraikuntza-Kode Teknikoan agintzen duenaren arabera.

* Instalazioen bereizketa: Finka berean banaketa publikoko urarekin batera beste jatorriko ura dagoenean, abonatutako pertsonak ura ibiliko edo bilduko duen sare eta instalazio desberdinak jartzeko obligazioa izango du eta bata eta bestea nahasteko ezein arrisku ekidin beharko.

* Urek jatorria banaketa publikoko saretik hornitutakoaren ezberdina dutenean, saneamendu kanona eta arazketa ordaindu beharko dute, beraien azken helmuga udal saneamendua denean.

* Ura arrazoizko eran erabiltzea, zarraztelkeriak ekidituz eta ura aurrezkeko xedez Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k sustatutako kanpainetan laguntza ematea.

10. artikulua. Pertsona abonatuen eskubideak.

Egoera berezien ondorioz abonatutako pertsonei egotz lekizkiekeen beste eskubide haietaz gain, honako eskubide hauek izango ditu izaera orokorrez:

* Uraren edangarritasuna: Indarrean dauden xedapenetan ezartzen diren edangarritasun baldintzak betetzen dituen ura jasotzea bere instalazioetan.

* Zerbitzu etengabea: Edateko uraren hornidura etengabea izatea, hornidura kontratuan ezartzen diren baldintzen arabera eta Ordenantza honetan eta gainontzeko xedapen aplikagarrietan finkatzen diren bestelako mugarik gabe.

* Fakturazioa: Jasotzen dituen zerbitzuen ordainketarako, une bakoitzean indarrean dauden kontzeptuak eta kopuruak faktura dakizkion.

* Irakurketaren maiztasuna: Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ren bisita jasotzea, hornidura kontrolatzen duen neurketa ekipoaren irakurketa egiteko..

* Fakturazioaren maiztasuna: Jasotzen dituen zerbitzuen fakturazioa, lau hilabeteko gehienezko epean jasotzea.

* Kontratua: Ordenantza honetako VIII eta IX. atalean finkatzen diren hornidurarako oinarrizko baldintzak jasoko dituen kontratu bat, idatziz, egitea.

* Barneko instalazioak gauzatzea: Abonatutako pertsonek beraiek hautatzea libreki barneko instalazioak egingo dizkion instalatzaile baimendu bat eta materialaren hornitzailea bera hautatzea, beti ere, arauz eskatu daitezkeen baldintza teknikoak bete

beharko baditu ere materialak. Barne instalazioekin amaitu ondoren eta alta eskaerarekin batera, Egikaritze Ziurtagiria aurkeztu beharko da.

* Erreklamazioak: Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ren edo bere enplegatuen jardueraren aurkako erreklamazioak tarte-ratzea, Ordenantza honetan jasotzen diren prozedurei jarraiki. Erreklamazioa uraren hornidura baldintzak betetzearekin lotuta dagoenean, erreklamatzaileak hornidura kontratuaren titularra edo haren legezko ordezkari dela egiaztatu beharko du.

* Informazioa: Zerbitzuarekin eta funtzionamenduarekin lotutako gai guztiak, norberaren hornidurarekin lotutako gaietan, kontsultatzeko; bai eta idatziz jasotzeko erantzuna ere, prozedura hori erabiliz egin diren kontsultetan. Era berean, eskatzaileak eskubidea izango du, horrela eskatuz gero, aplikagarri zaion eta indarrean dagoen Araudiaren berri eman dakion eta, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k Ordenantza honen ale bat utz dakion, abonatutako pertsonaren harrerarako bulegoan irakur dezan.

* Zigiluak kentzea: Premia larria gertatuz gero, instalatzaileak kontagailuaren giltza ken dezake eta horren berri Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ri eman beharko dio jardueraren ondorengo 24 orduren barruan.

III. ATALBURUA: INSTALAZIOAK.

11. artikulua. Banaketa Sarea.

Banaketa sarea hodi guztiek eta edateko ura presioan daramaten maniobra eta kontroleko gainontzeko elementuek osatzen dute; bertatik ateratzen direlarik abonatutako pertsonentzako ur hartuneak.

12. artikulua. Arteria.

Arteria da hornitutako zonaldeko sektore desberdinak lotzen dituen hodia eta banaketa sarearen barne, berarekin lotuta dauden gainontzeko elementuak. Arteriatan ezin daitezke ur-hartuneak atera.

13. artikulua. Bide Hoditeria.

Bide hoditeria osatzen dute, bide batetan zehar doazen banaketa sareko hodiak eta berauetatik, hala balegokio, hornidurako hartuneak, ureztaketa-hartuneak eta suteetako ur-hartuneak atera daitezke.

14. artikulua. Hartuneak.

Bide-hoditeria hornitu nahi den finka, lurzati edo dena delakoaren barneko instalazioarekin lotzen dituen hodien eta gainontzeko elementuen multzoak dira. Ura hartzeko gailuaren segidan hartune balbula bat ipiniko da.

Hartuneak honako elementu hauek osatuko dituzte:

a) Ura hartzeko gailua: banaketa sareko hodiaren gainean dago eta hartunea irekitzen du. Zerbitzuak egoki baderitzo giltza jarri ahal izango du.

b) Hodi-adarra: Ura hartzeko gailua ixteko balbularekin lotzen duen hodi zatia da.

c) Ixteko giltza: Hartunearen gainean egongo da, bide publikoan eta eraikuntzaren ondoan. Uren Zerbitzuak edo bereziki baimendutako pertsonak bakarrik erabili ahal izango dute; inolaz ere ez ordea, abonatuek, jabeek edota hirugarren pertsonek. Behar bezala homologatutako erregistro-kutxetan egongo da, erabili eta konpondu ahal izango den moduan.

d) Ixteko giltza nagusia: Hartuneak elikadura-hodiarekin bat egiten duen puntuan egongo da. Hartunearen kokalekua Ur Zerbitzuak zehaztuko du, atearen ondoan edota eraikinaren barruan, bestela.

15. artikulua. Ur Hornidurako Barneko Instalazioak.

Ur hornidurako barneko instalaziotzat honakoak hartuko dira: hodien multzoa eta bere kontrol, maniobra eta segurtasunerako elementuak; baina beti ere, uraren zirkulazioari jarraiki, ixteko giltza nagusiaren ondoren kokaturik daudenak.

16. artikulua. Saneamenduko Hartuneak.

Eraikuntzaren barneko instalazioak bide-hoditeriarekin lotzen dituzten hodien eta gainontzeko elementuen multzoak dira.

Hartuneak honako elementu hauek osatuko dute:

a) Abio-kutxeta: Beti jabetzaren mugaren ondoan egongo da, finkaren kanpoko aldean. Kutxeta honek C motako erabiltzaileentzat kontrol kutxeta izaera izango du (ikus eranskina) eta bere ezaugarriak Gipuzkoako Ur Kontsortzioko Kolektoreetako Isurketak Araupetzen dituen Erregelamenduak ezarritakoak izango dira.

b) Garraio-hodiak: Hasierako kutxetetatik saneamendu sareko lotura putzuetara bitarte doazen hodi zatiak dira.

c) Lotuneak: Hartuneko hodiak eta estolderia sarea elkartzen diren guneak dira.

IV ATALBURUA: BARNEKO INSTALAZIOAK.

17. artikulua. Baldintza Orokorrak.

Uren hornidurako barneko instalazioak baimendutako instalatzaile batek gauzatuko ditu; eta, beti ere, Eraikuntza-Kode Teknikoan agintzen dutenetara egokituko dira barneko instalazioak.

Instalazio hauen artapena eta zaintza, une bakoitzean gune horretan dauden eta horniduraren titularrak diren pertsonen kargurakoak eta konturakoak izango dira.

18. artikulua. Martxan jartzeko baimena.

Ur hornidurako barne instalazioak martxan jartzeko baimena lortzeko behar den dokumentazioa eta egin behar diren tramiteak izango dira Eraikuntzako Kode Teknikoan kasu bakoitzerako ezartzen diren eskakizunen araberakoak.

19. artikulua.Barne instalazioen aldaketa.

Hornidura eta saneamendu zerbitzuan abonatuta dauden pertsonek, barneko instalazioen egituran edo ezaugarrietan egin dezaketen edozein aldaketaren berri eman behar diote derrigorrez Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ri.

20. artikulua. Ikuskaritza Ahalmena.

Administrazioko Erakundeen Ikuskaritza almena ahaztu gabe, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k abonatutako pertsonen instalazioak ikuskatu ahal izango ditu, hornidura nola eta zein baldintzetan erabiltzen den zaintzeko xedez.

V. ATALBURUA: HARTUNEAK

21. artikulua. Baimena ematea.

Edateko uraren horniduarako baimena ematea Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ri dagokio eta Ordenantza honetan ezartzen diren baldintzak eta

egoerak betetzen diren guztietan eta bertan jasotzen diren arauen arabera emateko obligazioa dauka.

22. artikulua. Baimenaren Baldintzak.

Uraren hornidurarako hartune bat jartzeko baimena, hornidura osorako baldintzak betetzearen menpe egongo da; ondoren zehazten diren baldintzapean, alegia:

1. Hornitu behar den eraikina horniduraren estaldura eremuaren barne egotea.

2. Hornitu nahi den eraikinak barneko instalazioak izatea eta Ordenantza honetan jasotzen diren arauetan ezartzen diren baldintzetara egokitzea.

3. Hornitu nahi den eraikinak isurketen eta euri uren hartune bat izatea edo/eta bestelako ebakuazio sistema bat izatea; kasu honetan, horretarako behar dituen baimen guztiak izan beharko ditu.

4. Eraikinaren mugakide diren izaera publikoko kale edo plazetan, edo/eta bere fatxadaren aurrean, edateko uraren banaketa sare publikoko instalazioak izatea eta martxan egotea.

   Bide publiko batean ura eramateko hoditeria bi espaloietan proiektaturik badago ere, aurreko pasartean aipatutako aurreko espaloiaren beste aldekoan izatea hoditeria, ez dakar berez aurreko pasartean jasotako baldintza betetzea.

5. Eraikina hornitu behar duen hoditeria zerbitzua emateko egoera ezin hobean egotea eta bere garraio ahalmena nahikoa izatea. Hori horrela ez dela ulertuko da harguneari baja eman zitzaionetik urtebete baino gehiago pasa bada.

   Urte bete baino gehiagoz bajan dauden akometidetan, ur hornidurarako baldintzak betetzen dituen ziurtatu beharko da.

23 artikulua. Jarduerak Estaldura Eremuan.

Ordenantza honetako 6. Artikuluan definitutako estaldura eremuaren barne hornidura osorako baldintzak ematen direnean eta hartunerako dagokion baimena izapidatu denean, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k hartunea non ipini behar den zehaztuko du zehatz-mehatz.

Udalaren estaldura eremuaren barne egon arren, hornidurarik ez duten tokietan horniketa berrien emakida egiteko edo, horniketarik izanik, inguru horretan dauden instalazioen zabalpen bat edo aldaketa bat ekar dezaketen emakidak egiteko baimenak, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ren iritziko aukera teknikoen eta berak onartutako inbertsio planetan jasotzen diren lehentasunen arabera emango dira.

Nolanahi ere, kontsumitu nahi den puntutik hurbil banaketa sarerik ez badago, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k eskatzaileari exijitu diezaioke Banaketa Sarearen luzapena hartunea jartzeko baimentzen den punturaino. Luzapena Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k jarritako ezaugarri teknikoen arabera egingo da eta eskatzailearen kontura. Banaketa Sarearen luzapenaren obrak amaitutakoan, tarte berria Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren jabetzako geratuko da, eta horregatik eskatzaileak konpentsazio gisa ez du inongo kopururik jasoko. Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k eraikitako luzapena horniketa berriak elikatu ahal izateko erabil dezake, beti ere tarte horren edukiera gainditzen ez badu, egiterakoan ezarri zitzaizkion neurriak kontutan izanda.

Hartuneak eskatzailearen kargura egindo dira, Ordenantza honek ezarritako ezaugarrien arabera. Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k lanak nola gauzatu diren ikuskatu ahal izango du, egokiro gauzatu ez direnean horniketa ez emateko ahalmena du, akatsak zuzendu arte.

Nolanahi ere, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k ez du ur emari baten hornidura presio jakin batekin egiteko obligaziorik.

Ur emari jakin batetarako nahikoa presiorik izango ez balitz, eskatzaileak berak jarri beharko du presioa handitzeko sistema partikular bat eta haren artapen lana egin, Eraikuntzako Kode Teknikoko HS4 atalean (ur hornidura) aurreikusten den legez.

Hornidurarik ez edo nahikorik ez duen toki batetarako eskaera egiten duen orok, kontsumoen eskaera berriari aurre egiteko beharrezkoa litzatekeen sarearen zabalpen edo aldaketak eragin ditzakeen gastu guztiei egin beharko die aurre, bere kontura eta arriskura.

Sarearen zabalpen edo aldaketa oro egiteko Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k finkatutako baldintza teknikoak jarraitu beharko dira.

Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k ez du inolako obligaziorik izango, sare eta instalazioetan egin beharreko aldaketa, luzapen eta errefortzuak hirigintza

jardueren ondorio izanik ere, aipatutako sare eta instalazio horien tajuketa edo kokapena traba, oztopo edo menpekotzarik sortzen duenean.

Estaldura eremuaren barne sortzen diren poligono eta urbanizazio berrien barne egiten diren jarduerak, artikulu honetako aurreko puntuetan ezartzen diren betebehar eta baldintzetatik salbuetsirik egongo dira eta ondorengo artikuluan ezartzen diren baldintzen arabera arautuko

24. artikulua. Urbanizazioak eta Poligonoak.

Burutu beharreko hirigintza jarduerak, bide eta zerbitzu azpiegitura sortzea, aldatzea edo zabaltzea eragin dezaketen guneak iritziko dira urbanizazio eta poligono, Ordenantza honetako ondorioetarako; hau da, lursaila banatzen den lurzati edo orube desberdinen arteko eta berauetatik hiriguneko zonaldearekin lotzeko azpegiturak eragiten dituzteneko guneak.

Urbanizazio eta poligono pribatuen barne-sare orok, Gipuzkoako Urak, S.A.-ren (Sistema Orokorra) jabetzako kanpoko eroanbideekiko loturak, poligonoaren sarreran emari-neurgailu orokorra jartzea darama berekin. Kontagailu orokor honen alta jabekideek erabakitzen duten pertsona fisiko edo juridikoaren izenean emango da eta bere kontura instalatuko da. Aipatutako kontagailu orokor honen helburua, uraren m3-ak neurtzea eta fakturatzea izango da, urbanizazio eta poligonoetako instalazio pribatuen mantenimendu eskasagatik gertatu daitezkeelako. Fakturatu beharreko m3-ak, kontagailu orokorrean neurtutako m3-ei urbanizazio eta/edo poligonoko sare partikularrean altan emandako kontagailu banakakoen arteko diferentzia bezela kalkulatuko dira.

Aurreko pasartean definitutako poligono edo urbanizaziorako edo bertan kokatutako orube edo eraikinen hornidura edo hartunearen emakida, ondoren zehazten diren baldintzak aldez aurretik betetzearen menpe egongo da.

a) Aipatutako urbanizazio edo poligonoen ur hornidura zuzenerako behar diren barneko banaketa sareak eta gainontzeko instalazioak, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k onartutako eskemen arabera burutu eta, gai den teknikari batek definitu eta egindako proiektu batean jaso beharko dira, ondoren Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k onartzeko. Aipaturiko proiektua aplikagarri diren Erregelamenduetara eta Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k ezarritako Arau Teknikoetara egokitu beharko da. Eta proiektua urbanizazioaren edo poligonoaren sustatzailearen edo jabearen kontura eta kargura gauzatuko da.

b) Onartutako proiektuan definitutako obrak eta instalazioak, bai eta Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ren baimenarekin proiektua gauzatzen den bitartean izan daitezkeen aldaketak, urbanizazioaren edo poligonoaren sustatzailearen edo jabearen kargura burutuko dira bere osotasunean eta beti ere, eskumena duen Teknikari baten eta, kasua balitz, Industriako Lurralde Ordezkaritzak homologatutako enpresa instalatzaile baten zuzendaritzapean.

Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k obrak gauzatzen diren bitartean edo obra hartzeko edo zerbitzuari ekiteko unean, obrak egoki gauzatu eta proiektuan aurreikusitako materialaren kalitate-ezaugarriak errespetatu direla bermatzeko beharrezko irizten dituen froga eta saio guztiak exijitu ahal izango ditu, eta froga horietatik eratorritako gastuak urbanizazioaren sustatzailearen edo jabearen kargura izango dira.

Urbanizazioaren edo poligonoaren sustatzailea edo egileak ezingo du inoiz, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ren aldez aurreko idatzizko baimenarik gabe eta dagokion emakidarik jaso aurretik, uraren hornidura egin bertako eraikinetan, orubeetan edo lurzatietan.

c) Poligonoen barneko sareen eta Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ren menpeko kanpoko sarearekiko lotura edo loturak, eta urbanizazioak berak ezarritako behar berrien ondorioz egin beharreko aldaketa eta errefortzuak Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k finkatuko ditu eta artikulu honetako a) pasartean aipatzen den proiektuan jasoko dira argi eta garbi; eta gauzatu, berriz urbanizazioaren sustatzailearen edo jabearen kontura eta kargura gauzatuko dira.

Behin sareak eta sistema orokor publikoekiko loturak egin ondoren, Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren jabetzakoak izatera igaroko dira; alabaina, obrak ez badira Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k finkatutako irizpide teknikoen arabera gauzatu, Gipuzkoako Ur Kontsortzioak obrak hartzeari uko egin diezaioke eta sistema orokorrarekiko loturak egiteko baimena ezeztatu.

Horniduraren emakida landa lurrean edo lurzoru ez-hiriztagarrian ematea, indarrean dagoen hirigintza legediak baimentzen dituen balizkoetara mugatzen da.

25. artikulua Ezaugarriak Finkatzea.

Hartuneen ezaugarriak, hala materialeen neurriei, osagaiei, motari eta kalitateari dagokionean, nola gauzatu eta lotura guneari dagokionean, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k finkatuko ditu, hornitu beharreko eraikinaren erabilerari buruz

Eraikuntzako Kode Teknikoan ezarritakoaren, aurreikusitako kontsumoaren eta presio baldintzen eta Gipuzkoako Irak, S.A.-ren Araudi Teknikoan jasotzen diren berezitasunen arabera.

Puntu jakin batean eskatutako ur emaria dagoen hartunearen eta/edo banaketa sarearen hornidurarako gaitasuna baino handiagoa denean, horien ezaugarriak aldatzeak dakartzan gastuak eskatzaileak ordainduko ditu.

26. artikulua Eskaeren Izapidaketa.

Hartunearen eskaera interesa duen pertsonak egingo dio Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ri erakunde honek emango dion eta horretarako daukan eskaera-orri normalizatu batean.

Eskaerarekin batera, gutxienez, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

a) Kokapenaren, iturgintzaren, saneamenduaren eta suteen aurkako hartuneen planoa.

b) Egikaritzearen eta behar den dokumentazioaren ziurtagiria, instalazioen tipifikazioaren arabera.

c) Jabetza eskritura edo hornidura eskatzen den ondasun higiezinaren erabilgarritasuna egiaztatzen duen agiri.

d) Obretarako Udal Lizentziaren zenbakia eta baimena eman zitzaion data.

e) Dagokion baimena, hartunearen ibilbidea jabetza pribatutik igarotzen den kasuetan.

f) Horrela eskatzen duten jarduerek, isurketa baimenaren eskaera aurkeztu beharko dute.

Eskatzaileak aurkezten dituen datuen arabera, eraikinaren ezaugarrien eta banaketa sareen egoeraren arabera, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k, eskaera aurkeztu eta gehienezko hogeita hamar lanegunetako epean, interesatuari jakinaraziko dio, eskatutako hartunearentzako edo hartuneentzako baimena ematen dion edo ukatzen dion, eta kasu honetan, baimenik ez emateko arrazoiak azalduko dizkio.

Eskatzaileak, berriz, beste hogeita hamar egunetako epea izango du Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k egindako errekerimenduei erantzuteko edo, kasua

balitz, egoki irizten dituen alegazioak aurkezteko. Epe hori araututakoa bete gabe igaroko balitz, eskaerak bere indarra galduko du eta ez du Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-rentzako bestelako obligaziorik sortuko.

Eskaera onartu ondoren, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k, hamabost lanegunetako gehienezko epean, hartuneak edo hartuneek izan behar dituzten ezaugarriak eta baimenaren eta obrak gauzatzeko baldintzak jakinaraziko ditu

27. artikulua Emakidaren Xedea.

Edateko uraren banaketa sarean hartunea izateko baimena emango zaio, eraikuntza unitate independientea osatzen duen eta bide publikorako irisbide zuzena duen higiezin bakoitzari.

Araututakoa betetzearen ondorioetarako, eraikuntza unitate independentea izango da, sarrerako atari bakarra duten etxebizitza eta/edo lokalen multzoak osatzen duten eraikina, bai eta, industria edo merkataritza jarduera bakar bat burutuz, pertsona fisiko edo juridiko bakar baten jabetzakoak diren merkataritza eta industria eraikinak.

Eraikuntza unitate independentearen beheko oinetan kokaturik dauden lokalek, sarrera-atari berdina ez izan arren, higiezinaren kontagailuen bateria orokorretik hornitu beharko dira

28. artikulua Formalización de la Concesión.

Bi aldeek emakidaren baldintzak onartzen dituztenean, akordio horrek ez du eraginik izando harik eta eskatzaileak Ordenantza honen arabera dituen betebehar ekonomikoak bete arte.

29. artikulua Obrak Gauzatzea eta Artapena.

Uren hornidurako hartuneen obrak Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k gauzatuko ditu edo, Ordenantza honetan gai honen inguruan ezarritakoaren arabera.

Hartunearen ibilbiderako ireki eta itsi beharreko zangetako obrak, hala bide publikoan nola jabetza pribatuan, erretenak egin eta hormak eta zoladurak zulatzeko lanak abonatutako pertsonak ordaindu beharko ditu, kosteak bere kontura izan eta obrak bere erantzunkizunpean egingo dituelarik. Obrak gauzatzeko eta hartunea egokiro egiteko Uren Udal Zerbitzuak ematen dizkion argibideei jarraitu beharko dio.

Aurreko pasartean ezarritakoaren kalterik gabe, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k, aipaturiko obrak gauzatu ahal izango ditu, beti ere haren kontura eta harek eskatuz gero.

Nolanahi ere, hartunea gauzatzearen kostua eskatzailearen konturakoa izango da.

Instalazio hau Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ren langilegoak edo beronek baimendutako pertsonalak bakarrik maneiatu ahal izango du; eta horrenbestez, uraz hornitzen den higiezinaren jabeak ezingo du, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ren baimen espresurik gabe, inolako aldaketarik egin inguru horretan.

Oro har, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k hartuneak mantenduko ditu bide publikoaren amaneraraino edo finka pribatuaren mugaraino.

30. artikulua Hartunearen Eskubidea.

Gipuzkoako Urak-Agua de Gipuzkoa, S.A.-ko hartune baten eskatzaileak ordaindu beharreko kopuru ekonomikoak dira eskubide horiek, hornidura berri hori izan aurretik zerbitzua ematen zen baldintza berdinetan ematen eta gainontzeko hartuneetan inolako kalterik eragin gabe jarraitzeko, banaketa sarean egin behar diren zabalpen, aldaketa, erreforma eta hobekuntzetarako inbertsioen balio proportzionala ordaintzeko.

Hartunearen emakidak berez darama, Ordenantzan aurreikusitakoaren arabera, dagokion prezioa ordaintzea eskatzaileak.

Hartunearen eskubideak osorik eta behin ordainduko dira; eta hala ordaindu ondoren dagozkien instalazio, etxebizitza, lokal eta abarrei atxikituta geratuko dira, bere jabea edo erabiltzailea edozein delarik ere.

Abonatutako pertsona batek aurrez dagoen hartune baten sekzioa handitzea eskatuko balu, aldaketa horiek egiteak dakartzan gastuak eskatzaileak ordainduko ditu, eskatutako eta zegoen hargunearen arteko zenbatekoaren diferentzia adinako kopuru baten ordainketa egiteko beharra izango da.

VI. ATALBURUA:SANEAMENDUA.

31. artikulua. Baldintza Orokorrak.

Saneamenduko zerbitzuari Erregela-mendu honetan jasotako xedapenak aplikatuko zaizkio izaera orokorrez, beti ere, bere izaera espezifikoagatik hornidura zerbitzuari bakarrik aplikagarri zaizkion haietan izan ezik, eta ondorengo artikuluetan xedatutako berezitasunen kalterik gabe.

Aurreko pasartean ezarritakoaren ondorioetarako "hornidura", "hornidura edo horniketa", "kontsumoak" eta "hornitu" terminoak "hustuketa", "saneamendua", "isurketak" eta "ebakuazio sistema dutenak" terminoei egiten die erreferentzia.

Isurketaren kota kolektorean dagoena baino txikiagoa bada, dagokion jasotze ekipoaren instalazioa eta zaintzaren gastuak eskatzailearen kontura izango dira, eta arau orokor gisa, eraikinaren edo finkaren barruan jarriko da.

32. artikulua.Hartuneak.

Saneamenduko Hartunea Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k adierazten eta beronek irizten duen punturik egokienean lotuko zaio saneamenduko sare nagusiari.

Saneamenduko Hartuneak beren diseinuan eta eraiketan iragazkaiztasuna bermatuko dute, batez ere, saneamenduko sarearekin lotzen diren puntuetan. Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k hartunearen puntuan eta sarearekin lotzen den unean kutxetak jartzea exiji dezake, bai eta bestelako kutxetak egitea, emarien kontrol eta edukierarako, eta dagozkien neurketarako sistemak jartzea ere. Eta hori guztia, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k ematen dituen zehaztapenak betez gauzatuko da. Nolanahi ere, saneamenduko hartuneak estrukturalki irauteko proiektatu eta gauzatu beharko dira, bai eta, garraiatu behar diren uren erasokortasuna bermatuko duten ezaugarriekin ere.

Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k isurketen eta euri-uren hartune independienteak instalatzea exijituko du, bai eta, ondorioz, ebakuazio zerbitzua izango duen eraikin edo finkan sare berezituak egitea ere.

C motako erabiltzaileek (ikus eranskina), hartunearen aurretik, control kutxeta bat eduki beharko dute, berezkoa, sartzen erreza eta saneamenduko sarera dagokion Isurketa Baimenean baimendutako isurketa denak biltzen dituena.

Erabiltzaileek, horrela eskatzen zaienean, beraien instalazioetan, neurketako eta kontroleko tresneria jarri beharko dute, beraien ezaugarriak eta kokapena, Gipuzkoako Ur Kontsortzio honekin adostu beharko dute.

33. artikulua. Jarduerak Estaldura Eremuan.

Saneamenduko azpiegiturarik gabeko edo nahikoa saneamendu azpiegiturarik ez dagoen zonaldeetan erabiltzaileek irtenbide bereziak bila ditzakete, hala nola hobi septikoak edo beharrezkoak irizten diren bestelako arazketa sistemak jarriz; baina beti ere bai proiektua eta bai gauzaketa gai den teknikari batek egin eta kontrolatu beharko ditu.

Nolanahi ere, konponbide horiek eta ematen diren baimenak behin behineko izaera izango dute, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k finkaren inguruan saneamenduko sarerik ez duen bitarterako. Beraz, saneamenduko sarea finkaren ondotik igarotzen denean, Ordenantza honetan aurreikusitako moduan eta baldintza orokorretan ekingo zaio sarearekiko loturari.

Aurreko pasartean aurreikusita-koaren ondorioetarako, saneamenduko azpiegiturarik gabeko zonaldeak iritziko dira, hartunea kokatu behar den inguru hartan kolektore sarerik ez dituzten zonaldeak.

Era berean, toki batek nahikoa saneamendu azpiegiturarik ez duela iritziko da, hartunea kokatu behar den toki horretan isurketa eskaera berri bati erantzuteko adinako garraio gaitasunik edo kotarik ez duen tokia.

Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k ez du izaera bereziko etxe instalazioetako isurkinak bere gain hartzeko, garbitzeko eta saneatzeko obligaziorik, baldin eta Zerbitzuaren eta isurketen arazketa sistema partikularraren jabearen arteko akordiorik ez badago. Eta kasu honetan bi aldeen artean hitzartutakoari lotuko zaio eman beharreko zerbitzua, edo/eta, bestela, zerbitzu hori saneamenduari berez dagozkion zerbitzuak kobratzeko ordainetan ematen ez bada.

VII. ATALBURUA: KONTSUMOAREN KONTROLA.

34. artikulua. Neurgailuak.

Eraikuntzako Kode Teknikoan kasu bakoitzerako ezarritakoaren kalterik gabe, horniketa ororen fakturaziorako oinarri gisa erabiliko diren kontsumoen neurketa kontagailuen bidez egingo da, kontsumoaren beraren berri emango duen bide bakarra izango dena, bestalde.

Arau orokor gisa, bide publikora ematen duten eraikinen kasuan, kontsumoaren neurketa honako eran egingo da:

-- Kontagailu bakarra: Eraikinean edo finkan etxebizitza bakarra edo lokal bat dagoenean, obretarako bahin behineko horniketaren eta poligonoetan obrak gauzatzen diren bitartean jarriko dira, barneko banaketa sareak Zerbitzuak hartzen ez dituen bitartean egongo dira.

-- Banakako kontagailu bateria: Etxebizitza edo lokal bat baino gehiago dagoen eraikinean derrigorrezkoa izango da bakoitzarentzat neurgailu bat eta zerbitzu amankomunetarako behar diren gainontzeko guztiak jartzea.

Nolanahi ere, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k barneko instalazioa hasten den puntuan kontagailu orokor bat jarri ahal izango du eta bere eginkizun bakarra instalazio horren barneko kontsumo osoa kontrolatzea izango da. Kontagailu honek ematen dituen datuak barneko instalazioan izan daitekeen edozein arazo igartzeko erabiliko da. Hala, edozein matxura izanez gero berehala jakinaraziko litzaieke abonatutako pertsonei eta hauek dauden akatsak zuzentzeko obligazioa izango dute, beti ere hogeita hamar eguneko epearen barne.

Epe hau igaro ondoren arazoak konpondu gabe badaude, aipatutako kontagailu totalizatzaileen alta jabekideen izenean egin behar da. Jabekideen Erkidegoari dagokio kontagailu totalizatzailean jasotako kontsumoa ordaintzea, banakako kontagailuen batuketan ez dagoena, diferentzia hauek finka barruan izandako kontsumoei bait dagozkie.

Jabe bat baino gehiago dagoen sektore edo partzela pribatu baterako hartune bakarra dagoen industrialdeetan kontagailu orokor bat jarriko da partikularren partzela independentearen mugan, partzela edo sektorearen jabeen kontura. Kontagailu orokor horren eta kontagailu partzialen baturaren artean alderik badago kontagailu partzialen artean banatuko da.

Etxe itsolatuen kasuan, kontagailuak, oro har, konexio bakoitzaren hasieran jarriko dira, baina kontagailuaren kokapena kontsumorako puntura hurbiltzearen irizpidea aplikatuko da fatxada edo baserriaren mugaraino iritsi arte, beti ere, ibilgailuz sarbidea duen leku batean kokatuta dagoen armairua eta aurreko itxierarik gabe. Kontuan hartu beharrekoa da, kontagailuen kokapena aldatzeko beharra sortutako gastuak, harpidedunak ordaindu beharko dituela.

Kontagailuaren edo kontagailuen neurriak eta ezaugarriak finkatzea, erabili den sistema edozein delarik ere, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ren eskuduntza izango da. Hala, neurriak eta ezaugarriak finkatzerakoan, kontuan izango

dira abonatutako pertsonak bere horniketa eskaeran egiten duen kontsumoa eta Eraikuntzako Kode Teknikoan xedatutakoa.

35. artikulua. Neurgailuen Ezaugarri Teknikoak.

Neurgailuen ezaugarri teknikoak, Europako Elkarteak emandako arauetara egokituko direnak, honako hauek izango dira:

a) Kontagailu motak:

Ez da dagokion egiaztapen ofizialeko bermerik eta/edo Industriako Lurralde Ordezkaritzaren batek emandako jatorrizkoko bermerik ez duen kontagailurik instalatuko. Arau orokor bezala, kontagailu berriak Bolumetrikoak izango dira. Suteen kontrako sareetan eta behar bezala egiaztatuta kasuetan bakarrik abidaurzko C motako kontagailuak jarriko dira. Kontagailuak Eraikuntzako Kode Teknikoaren arabera muntatuko dira.

b) Instalatzen diren aparailuek honako ezaugarriak izango dituzte:

- Kontagailuen fabrikazioari dagokionean ISO 9001 eta/edo ISO 9002 arauaren ziurtapena egiaztatu duen enpresa batek eginak izan beharko dute.

- CEE homologazioa izatea, B motakoa edo goragoko kontagailuentzako.

- Behar den bezala pintatuta eta egiaztatuta egotea.

36. artikulua. Kontagailu Bakarra.

Babespen eta bere maniobra giltzekin instalatuko da armairu baten barnean. Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k homologatutakoa izango da eta helburu hori baino ez du izango. Eraikinaren beheko oinan kokatuko da, sarrerako atearen ondoan, eta fatxadaren horman txertatuta edo hornitu nahi den jabetzako itxitura baten barnean kokatuko da. Nolanahi ere, sarrera zuzena izango du bide publikotik.

Inoiz, eta behar bezala zuritutako arrazoiak tarteko, kontagailu bakarra eta maniobra giltzak lurpeko ganbara batetan kokatu ahal izango dira, baina kaletik sarrera zuzena eta jabetzaren fatxadatik edo itxituratik ahalik eta gertuen egon beharko dute.

Kontagailuaren armairua edo itxitura iragazkaitzak izango dira eta hustubidea, instalatzen den hartuneak eman dezakeen ur emari maximoa ebakuatzeko adinako

izango da eta estolderiara jeitsiko zuzenean. Era berean, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k homologatutako ate era sarrailak izango ditu.

37. artikulua. Banakako Kontagailu Bateria.

Banakako kontagailu bateriak helburu hori bakarrik izango duten lokaletan edo armairutan instalatuko dira. Eraikinaren beheko oinan, erabilera amankomuneko zonan kokatuko dira eta ataritik sarbide zuzena izango dute.

Kontagailuak biltzeko bateriak ofizialki onartutako eta homologatutako mota eta modelokoak izango dira.

Gainleiho bakoitzaren oinarrian eta banakako kontagailuen bateriaren lotunean bertan, ura banaketa sarera itzultzea eragotziko duen balbula bat instalatuko da.

38. artikulua. Kontagailuaren Jabetza.

Abonatutako pertsonek kontagailuak eta bestelako aparailuak jartzeko eskubidea dute, beti ere aparailu horiek Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A-k homologatutako sistema eta motatakoak badira eta ofizialki egiaztatu ondoren aldeko emaitza izan badute.

Kontagailuek, homologatutakoak izateko, 35. Artikuluan zehazten diren ezaugarriak bete behar dituzte.

Abonatutako pertsonak neurgailuen eta kontroleko aparailuen zaintza eta kontserbazio egokiaren erantzukizuna izango du eta Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k bidezko bada beraien mantentze-lan, maneiatze eta berritze egokiarena.

Erabiltzailearen kontura jarri ondoren, neurtzeko tresneria Gipuzkoako Urakena izatera pasako da.

Suteen aurkako Zerbitzuaren hornidura kasuetan, bere zaintzaren, mantetze-lanen eta berritzearen erantzukizuna kontratuaren titularrak izango du, bidezko denean.

39. artikulua. Egiaztapena Egiteko Derrigorrezkotasuna.

Ordenantza hau indarrean sartzen den egunetik aurrera, derrigorrezkoa izango da inolako salbuespenik gabe, uraren kontsumoaren fakturaketa egiteko oinarri gisa

erabiliko diren eta instalatzen diren kontagailuen eta neurgailuen egiaztapena eta zigilaketa egitea.

Aparailuen egiaztaketa eta zigilaketa, ondoren zehazten diren kasuetan, Industria gaietan nor den Erakunde batek egingo du laborategi ofizial edo baimendutako baten bidez:

1. Aparailuen funtzionamendu arruntan eraginik izan dezakeen edozein konponketa lana egin edo zigilua hautsi behar izan denean.

2. Abonatutako pertsonek, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k edo Administrazio Publikoko edozein organo eskudunek eskatzen dutenean.

Aparailuak arauz ezarritako baldintzak beteko ez balitu konpondu eta egiaztatua izan beharko da berriro.

Egiaztapenak laborategi ofizial edo baimendutako batean egin beharko dira; nolanahi ere, kontagailua dagoen tokian ere egingo ahal izango da, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ren iritziz, egiaztapena laborategian egiten den eran eta aparailu eramangarriekin egin daitekenean.

40. Artikulua. Zigilaketa Ofiziala.

Laborategi ofizialak edo baimendutakoak egiaztapenik egin dizkien kontagailuak edo aparailu guztiak zigilatuko ditu.

Egiaztapenaren ondoren jarritako zigilu ofizialak bermatzen ditu:

1. Kontagailua edo neurgailua onartutako sistema batekoa dela.

2. Erregulartartasun baten barne funtzionatzen duela.

Lehen instalazioko kontagailu berrietan, egiaztapen data gisa, laborategiak jatorrizko egiaztapen markarik daukan egiaztatzen dueneko data jasoko da. Data horretatik aurrera hasiko da kontatzen kontagailuaren bizitza Ordenantza honetan aurreikusitako ondorioetarako.

Abonatutako pertsonaren betebeharrak izango dira kontagailuaren edo neurgailuaren zaintza eta egoera onean edukitzea eta mantentzea, bai eta kontagailuen zigiluei eta etiketei dagokionean ere. Obligazio hau ez betetzetik erator

daitekeen erantzukizuna horniketaren titular gisa ageri den pertsona abonatuarena izango da.

41. artikulua. Kontagailuen Aldian Aldiko Berriztapena.

Berriztapenaren helburua da kontsumoen edukiera, onartutako tolerantzien barne, bermatzea eta parkea osatzen duten kontagailuak funtzionamendu egoera onean edukitzea.

Helburu hau betetzeko, ur hotzeko kontagailuek modeloaren onarpenerako eta jatorrizko egiaztapenerako kontrol metrologikoa pasa beharko dute. Kontrol hori egin beharko da kontuan hartuz ekainaren 10eko 597/1998 Errege Dekretuan, CEE Kontrol Metrologikoan edo arau horiek garatzen dituzten erregelamenduetan adierazitakoa.

Ezaugarri metrologiko, teknologiko, inskripzio, marka eta jatorrizko egiaztapenari dagokionean aipatutako araudian ezarritakoari lotuko zaio.

Kontagailuen bizitza erabilgarriaren epea instalatu zenetik 10 urtetakoa izango da eta 7 urtetakoa 25mm baino haundiagoak diren kontagailuen kasuetan. Hala ere, diametro handia eta urteko kontsumoa txikia duten udal erbilerako kontagailuak, kontrolerako kontagailuak, edo suteen aurkako Zerbitzuaren hornidura kasuetan bizita erabilgarria 14 urtetara zabalduko da kontagailuaren egoera egokiaren arabera. Epe hau igaro ondoren aldatu egin beharko delarik derrigorrez.

42. artikulua. Laborategi Ofizialak.

Laborategi ofizialak dira Eusko Jaurlaritzak, ur horniketan erabiltzen diren kontagailuen eta neurgailuen frogaketa, egiaztapen eta kontrolerako instalatuta dituenak.

43. Laborategi Baimenduak.

Laborategi ofizial horietatik aparte bestelako laborategiak ere ireki ahal izango dira helburu eta ondorio berdinekin; baina beti ere, dagokion Administrazioak emandako baimena izan beharko dute. Era berean, Administrazio hauek baimenak emateko eta aipatutako laborategien funtzionamendua zuzenduko dituzten arauak emango dituzte.

44. artikulua. Kontagailuen Desmuntaia.

Kontagailuaren edo neurgailuaren konexioa eta deskonexioa Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k edo baimendutako pertsona batek egin beharko du, instalazioaren zigilaketa egin beharko duelarik. Era berean, berau izango da ustiapena dela-eta, zigilaketa kentzeko baimena izango duen bakarra.

Kontagailuak edo neurgailuak desmuntatu ahal izango dira ondorengo arrazoi hauek ematen direnean:

- Industria Ordezkaritzaren Ebazpenak horrela erabakitzen duenean.

- Horniketa kontratua iraungitzen denean.

- Neurgailuan matxurarik izanez gero.

- Aldian aldiko berrikuspenen ondorioz, beti ere Ordenantza honetan ezartzen denaren arabera.

- Kontsumoen erregimenean izan daitezkeen aldaketengatik, hau da, instalatutako aparailuaren gaitasun teorikoa, goitik zein behetik, gainditzen denean.

Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ren iritziz, kontagailuaren edo neurgailuaren funtzionamendua zuzena ez dela erakusten duten aztarna garbiak daudenean. Kasu honetan, desmuntatu egingo da eta haren ordez, bide ofizialari jarraiki egiaztatu den beste bat jarriko da. Eta, bide batez, aurrekoaren ordez instalatutako aparailuak erregistratzen dituen kontsumoak izango dira likidaziorako erabiliko direnak.

Kontagailuak aldatzeko prozedurak arrazoiaren arabera:

1. Aldaketa matxuragatik.

Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k kontagailu bat matxuratuta dagoela somatzen duenean, aldatu egingo da Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ren jabetzakoa bada eta, bestela, abonatutako pertsonari jakinaraziko zaio berak, bere kontura, gehineko 30 eguneko eparen barruan, konpon edo alda dezan.

Epe hori betetzen denean eta kontagailua aldatu gabe badago, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k aldatuko du, eta jabeak aldaketa gastuak bere gain hartuko ditu.

2. Aldian aldiko berrikuspenaren ondorioz aldatu behar direnean, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k egingo du eta aldaketa gastuak bere gain hartuko ditu. Suteen aurkako hornidura zerbitzuaren kasuetan izan ezik, hauetan kontratuaren titularra izango da kontagailua berritzearen arduraduna.

Abonatuen instalazioaren egoerak kontagailu aldaketa sinplea baino esku-hartze handiagoa behar balu, zaharkitu, akastun edo ohiz kanpoko egoeragatik, Gipuzkoako Urak, S.A.-k instalazioaren konponketa abonatuari eskatuko dio, eta 30 egun baino lehen egina egon beharko du. Aipatutako konponketa esandako epean egiten ez bada, kontsumoaren zenbatespena ordenantza honen 86. artikuluaren araberakoa izango da.

45. artikulua. Kokaeraren Aldaketa.

Kontagailuak edo neurgailuak kokatuko diren oinarrizko instalazioa instalatzaile baimendu batek egin behar du, eta higiezinaren titularraren kontura eta kargura egingo da; beti ere, arauz ezarritako baldintzak betetzen dituen kokagune batetan egin beharko delarik.

Kontagailuaren edo neurgailuaren kokapenean edozein aldaketa egiteko, horniketa atxikituta duen esparruaren edo jabetzaren barne, aldaketa egitea bultzatu duen aldearen kargura izango da, beti. Alabaina, abonatutako pertsonaren kargura izango dira, ondoren zehazten diren arrazoiengatik egiten diren kontagailuen kokaguneen aldaketak:

a) Kontagailuaren instalazioa egin eta gerora, abonatutako pertsonak egiten dituen erreforma obrengatik eratorri eta irakurketa, berrikuspena edo aldaketa eragozten denean.

b) Kontagailuaren instalazioak Ordenantza honetan jasotzen diren betebeharrei erantzuten ez dionean eta horniketaren titularitatean aldaketarik dagoenean.

46. artikulua. Kontagailua Maneiatzea.

Abonatutako pertsonak edo erabiltzaileak ezingo du inoiz maneiatu kontagailua edo neurgailua, ez eta desbideraketak eta hartuneak egin aparailuaren aurretik, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ren baimen espresurik gabe.

47. artikulua. Jakinarazpena Abonatutako Pertsonari.

Neurgailuetan egin beharreko edonolako frogak Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k egoki irizten duen guztietan edo abonatutako pertsonak berak eskatzen duen bakoitzean egin beharko dira. Alabaina, froga hori abonatutako pertsonak eskatuta egingo balitz, eta neurgailua funtzionamendu egoera onean dagoela egiaztatzen bada, zerbitzu honengatik sortutako gastuak eskatzailearen kontura ordainduko dira.

Neurgailua funtzionamendu egoera onean dagoela iritziko da, neurketaren erroreak, izango balira, indarrean dagoen araudiak onartzen dituen tarteen barne badaude.

Neurgailuaren egiaztapenaren ondorioz funtzionamendu okerra egiaztatuko balitz, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k dagokion likidazioa egingo du.

Egiaztapenaren ondorioz kontagailuak baimendutako errore positibo maximotik gora funtzionatzen duela egiaztatuko balitz, itzuli beharreko kopurua zehazteari ekingo zaio; beti ere, kontsumo erreala kontutan izanik eta likidazioa atzeratu behar den hilabete horietan indarrean zeuden tarifen arabera.

Aurreko pasartean zehazten den denbora, kontagailua instalatu zen garaitik aurrera edo egin zen azkeneko egiaztapenaren datatik aurrera, markaketan errorea egiaztatu den egunera bitarte igarotako denbora izango da. Eta inoiz ez da urtebetetik gorakoa izango.

Kontagailuak emari desberdinekin oker funtzionatzen duela egiaztatzen bada, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k itzuli beharreko kopuruaren likidazioa, hala balegokio, aurreko pasartean finkatutako denbora horretara luzatuz egingo da; eta denbora horretan, kontagailu berria jarri eta hurrengo laurogeita hamar egunetan izandako kontsumo bera izan dela iritziko da.

Egiaztapen prozesuak irauten duen bitartean aparailu bat iruzur egiteko xedez maneiatu dela egiaztatuko balitz, egiaztatzaileak dagokion akta, Ordenantza honetako 90 artikuluan ezartzen diren ondorioetarako, jasoko du.

48. artikulua. Aldaketa.

Konponketarik behar duelako, aldiko berrikuntza eta/edo egiaztapenaren ondorioz, kontagailu edo neurgailu bat instalaziotik kendu behar denean eta berria berehala jarri ezin denean, haren ordez behin behineko kontagailu edo neurgailu bat, egiaztapen frogak pasa dituena, jarriko da eta bera izango da kontsumoa kontrolatuko duena.

Instalatzen den kontagailu edo neurgailu hau, beti, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ren jabetzakoa izango da. Alabaina, zaharraren ordez jartzen den kontagailua abonatutako pertsonaren jabetzakoa den kasuetan, eta konponketaren, aldiko berriztapenaren eta/edo egiaztapenaren ondoren erabilgarria dela irizten bada eta abonatutako pertsonak bere instalazioan erabiltzen jarraitu nahi badu, berriro instalatuko dio Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k eta abonatutako pertsonaren kargura izango dira gastuak; eta bere baliogarritasun aldia edo bizitza amaitu bitartean egongo da bertan.

49. artikulua. Gastuak.

Oro har, kontagailuen edo neurgailuetan egiten diren egiaztapenen edo konponketen ondorioz sortzen diren gastuak aparailu horien jabearen kontura ordainduko dira.

Egiaztapena alde baten eskaerari erantzunez egiten denean, haren ondorioz kontzeptu guztietan sortzen diren gastuak eskatzailearen kontura ordainduko dira, beti ere, aparailuaren funtzionamendu okerra erakusten ez duen bitartean eta errorea beste aldearen aldekoa denean.

VIII. ATALBURUA: URAREN HORNIKETA-RAKO BALDINTZAK.

50. artikulua. Horniketaren Izaera.

Urari ematen zaion erabileraren arabera, horniketaren izaera honakoetan sailkatuko da:

- Etxe erabilerako kontsumoak.

Etxe erabilerako kontsumo indibidualizatuak izando dira etxebizitzetan edo esparruetan egiten direnak, baldin eta haiek baldin badituzte lehen erabilerako lizentzia eta bizitegi erabilera.

Etxe erabilerako kontsumo indibidualizatuak.

Etxe erabilerako kontsumoak bizilagunen komunitateetan eta kontagailu orokor batek neurturikoak.

Kontagailu orokorraren bidez neurtutako bizilagunen erkidegoetako etxe erabilerakotzat hartuko dira etxbizitzetan edo barrutietan egiten direnak, baldin eta

horiek lehen erabilerako lizentzia baldin badute eta bizitegitarako erabilera eduki behar badute eta abonatua finkaren jabea bada, etxebizitza bat baino gehiagorekin edo jabeen erkidego batekin.

Etxeko erabilerako kontsumoak irakaskuntza arautuko ikastetxeetan, ospitaleetan eta antzeko guneetan, erlijiozko guneak, unibertsitateak, hirugarren adinekoentzako eta ikasle egoitzetan, polizi-etxeak eta koarteletan eta bestelako antzeko ostatu kolektiboetan, ur bero sanitarioa berotzeko zentraletan.

- Nekazaritzako eta abeltzaintzako erabileretako kontsumoak.

Nekazaritzako eta abeltzaintzako erabileretako kontsumoak bezela hartuko dira, nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiapenetan egiten direnak eta aipatutako jarduerarako dagokion Baimena dutenak.

- Industria eta merkataritza erabileretako kontsumoak eta gainontzeko kontsumoak.

- Jarduera orokorretako erabilerako kontsumoak.

- Ostalaritza jarduerako erabilerako kontsumoak.

- Obrak egiteko kontsumoak.

- Finka partikularretako ureztaketa eta igeritegi erabilerako kontsumoak.

- Udala, Udal-buleegoak eta Udal Entitateen erabilerako kontsumoak.

Aurreko pasartean aipatutako etxebizitza edo esparru batean egoitza erabilera eta jarduera bat aldi berean burutzen direnean, horniketa osoa jardueraren erabilerarako dela iritziko da

Etxeko erabilerarik ez duen kontsumoak negozio edo industria jarduerak burutzen diren lokaletan iritziko dira, hau da, burutzeko JEZ-n alta behar duten jardueretako lokaletan. Bestalde, izaera bereko kontsumoa izango da, administrazio publikoen eta bere organismoen jabetzako lokaletan, hala merkataritzakoetan nola etxebizitza erabilerakoetan burutu arren, ordenamendu juridikoak jarduera horiek baimentzen baditu eta bere erabileragatik beste ezein ataletan sar ezin daitezkeenetan ematen dena. Eta azkenik, izaera bera izango du, baita ere, garaje partikularren, trastetegien eta lokalen horniketek, oro har jarduerarik ez dutenetan ematen diren kontsumoak, alegia.

Obrak burutzeko horniketaren izaera izango dute eraikuntza edo erreforma beharrei eta, azken batean, edozein obra burutzeko behar den horniketari erantzuteko izango diren kontsumoek. Horniketa hauek baimenduko dira, hala ere, denbora jakin baterako eta prekarioan, beti ere herritarren behar orokorren baldintzapean.

Finka partikularretan ureztaketa eta igeritegien erabilerako horniketaren izaera izango dute erabilera hori edozein finka partikularrean ematen denean, bertan etxebizitza bat edo multzorik, industriarik eta abarrik dagoen edo ez begiratu gabe

- Suteei aurre egiteko kontsumoa.

Suteen aurkako horniketaren izaera izango dute, helburu horrekin kontratatzen diren ur horniketak

Udal Erakundeen erabilerarako horniduratzat Udalaren edo partaidetza duen Mankomunitatearen izenean darenak izango dira

Aurrez aipatutako horniketa mota horietako edozein horniketa berezia baimendu ahal izango da, noizbehinkako edo behin behineko izaera duen ezein beharri erantzun behar zaionean. Nolanahi ere, horniketa hauek Udalak eskatzen den punto horretan dauzkan instalazioek ematen dituzten aukeren eta hiritarren behar orokorren menpe egongo dira. Nolanahi ere, emakida prekarioan eta denbora jakinerako izango da

51. artikulua. Horniketa Desberdinak.

Nolanahi ere, eraikin bakoitzean egon daitezkeen merkataritza edo negozio lokalek beren horniketa independientea izan beharko dute.

52. artikulua. Suteen Aurkako Zerbitzuaren Horniketa.

Eraikinen barneko suteen aurkako instalazioek, eraikinen xedea edo erabilera edozein izanik ere, erabilera hori bakarrik izango duen ur horniketa berezia izan behar dute. Eta ondorio guztietarako, Ordenantza honetan horniketa arrunteko instalazioetarako agintzen diren baldintzak bete beharko dituzte, ondorengo irizpideen arabera:

1. Instalazio bereizituak izatea: Suteen aurkako instalazioak beste edozein erabilera duten instalazioetatik bereizituak izango dira eta berauetatik ezingo da beste erabilerarik izan dezakeen desbideraketarik egin.

Era berean, eta Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ren baimen espresurik gabe, debekaturik dago urik hartzea instalazio hauetako edozein elementutik, suteen kasuan izan ezik.

Suteen aurkako araudi bereziak abonatutako pertsonaren jabetzako barneko instalazioan Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k bermatzen ez duen presiorik exijitzen duenean, abonatutako pertsonaren erantzukizuna izango da, lehen aipatutako araudi berezi hori betetzera eramango duen presioa handitzeko gailuak jartzea eta haiek artapen lana egitea.

Suteen aurkako hartunen bidez kontsumitutako ura fakturatu egingo da. Eta horretarako kontagailu bat jarri beharko da.

2. Horniketaren kontratazioa: Banaketako sare publikoari suteen aurkako horniketarako hartune bat lotzeko, aldez aurretik, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ren eta abonatutako pertsonaren arteko horniketa kontratua sinatu beharko da.

Kontratu hauek horniketa arruntetarako kontratuen izapidaketa eta izaera bera izango dute; eta horrenbestez, arauz ezarritako manamendu berak bete beharko dituzte

Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k ez du inolako erantzukizunik suteen aurkako instalazioen instalazio partikularren funtzionamenduaren kalkulu, diseinu eta egoeraren inguruan.

IX. ATALBURUA: HORNIKETAREN EMAKIDA ETA KONTRATAZIOA

53. artikulua. Horniketa Eskaera.

Horniketa kontratatu aurretik, interesaturik dagoen pertsonak Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k, xede horrekin, emango dion horniketa eskaera egiteko inprimakia bete eta aurkeztu beharko du.

Eskaera orrian eskatzailearen izena, eskatutako urari eman nahi zaion erabilera, finkaren xedea eta, bide batez, horniketaren ezaugarriak eta baldintzak egokiro definitzeko eta zerbitzuaren ordainetan dagozkion tarifak aplikatzeko, beharrezko izan daitezkeen gainontzeko ingurumarien berri eman behar du. Inprimaki horretan jakinarazi beharko da jakinarazpenak igortzeko helbidea, beti ere, hornidura izango duen gunea ez den kasuetan.

Gipuzkoako Ur Kontsortzioak, tratamenduaren arduradun gisa, zure datu pertsonalak zerbitzua egoki emateko ezinbestekoak diren gestio administratibo, ekonomiko eta teknikoak egiteko erabiliko ditu. Zure datuen tratamenduaren gaineko eskubideak erabiltzeko eta tratamendu horri buruzko informazio gehigarria eskuratzeko, gure web guneko pribatutasun atarira jo dezakezu
www.gipuzkoakour.eus/Portal_Privacidad/index.aspx

Adingabeko emantzipatuek ezingo dute kontratatu. Emantzipatutakoen kasuan, egiaztatu beharko dute, berarien egoera notarioaren aurrean sinatutako dagokion emantzipazio agiriaren bitartez.

Aurrez arautu eta horniketaren inprimakian agertarazten diren datu guztiak zuzenak izatea eskatzailearen erantzukizuna izango da eta aipatutako horniketa arautzeko oinarri gisa erabiliko dira.

Horniketa eskaerarekin batera, interesaturik dagoen pertsonak ondorengo dokumentazioa erantsiko du:

a) Etxebizitzetako abonatuak

- Jabetza eskritura, errenta kontratua edo horniketa eskatzen den higiezina erabiltzeko eskubidea egiaztatzen duen agiria.

- Kontratatzailearen nortasuna egiaztatzen duen agiria.

b) Nekazaritzako eta abeltzaintzako abonatuak.

- Ustiapen baimena.

c) Merkataritza, Industria eta gainontzeko abonatuak

- Jardueraren lizentzia edo lizentzia eskaera edo, bestela, hornidura kontratatzeko udal baimena.

- Jabetza eskritura, errenta kontratua edo horniketa eskatzen den higiezina erabiltzeko eskubidea egiaztatzen duen agiria.

- Kontratatzailearen nortasuna egiaztatzen duen agiria.

Lehen erabilerako etxebizitzen edo lokalen kasuan edo horien barne instalazioak aldatu badira, ezinbestekoa izango da aurkeztea instalatzailearen buletina, Industria Ordezkaritzak onetsia.

C motako erabiltzaileek (ikus eranskina): isurketa baimenaren eskaera beteta eta dagokion dokumentazioarekin batera.

54. artikulua. Hornidurak harguneen bidez

Erabiltzen ari diren ur hargune guztiek dagokien kontagailua eduki beharko dute, hargunea eskatu duen erabiltzailearen izenean.

Gainerako ur harguneak, hau da, kontagailua instalatzeko eskatu ez den harguneak behar bezala prezintatuta edo zigilatuta ditu Gipuzkoako Urak S.A.k

Baldin eta, salbuespen bezala, zigilatutako edo prezintatutako ur harguneren batetik ura kontsumitu behar bada, Gipuzkoako Urak S.A.-k aldi baterako kontratatu ahal izango du ur hornidura ur hargune horietatik.

Halako hornidura eskatzen duten interesdunei ematea ala ez Gipuzkoako Urak, S.A.ren esku egongoda. Horrela eginiko kontratuak hiru hilabetekoak izango dira gehienez ere, eta, denbora hori igarota, Gipuzkoako Urak S.A.k kontagailu finko bat instalatzeko eskatuko du, behe hornidurari buruz indarrean dagoen Araudi Teknikoko xedapenen arabera.

Ur harguneen bidezko behin-behineko hornidura izateko, fidantza edo abal bat odaindu beharko da aurretik, ur harguneei eragin lekizkiekeen kalteengatik erantzuteko.

Abonatua den pertsonak egingo ditu behin-behineko harguneak ureztatze harguneetan, ur hargunearekin bat datozen errakore edo harien bidez eta kanila jarriko du, ura alferrik atera ez dadin. Halako harguneak ondo-ondo itxita utzi beharko dira erabiltzeari uzten zaien bakoitzean, ura alferrik ez galtzeko. Pertsona abonatuak ordainduko ditu ur harguneei gaizki erabiltzeagatik eragiten zaizkien kalteak konpontzeko gastuak, utzitako fidantza erabiliko duelarik horretarako.

Pertsona abonatuaren kontu izango dira kontagailuaren instalazioa eta hura instalatzeko behar diren pieza etajarduketa guztiak; behar diren zaitza eta segurtasuna ere jarriko ditu, halako instalazioak lapurutu edo hondatu ez ditzaten edo gaizki

ipintzeagatik istripurik izan ez dadin. Ordenantza honetan ezarritako eskakizunak bete beharko ditu kontagailuak.

Abonatutako pertsonak Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ko langilegoari, edo berak baimendutako pertsonalarai eta Udaltzainei erakutsi beharko die, hauek horrela eskatuz gero.

Ikuskaritzaren ondorioz ura galtzen edo erabilera ez egokia ematen zaiola egiaztatutko balitz, kontratua iraungitzeari eta hornidura etetzeari ekingo zaio. Abonatutako pertsonak, horniduran erabiltzen dituen hodiak eta mahukak modu egokian babestu eta zaindu beharko ditu, jariorik izan ez dezaten.

Abonatutako pertsonak, kontratuaren indarraldiaren barne, kontratatutako hartunea, batetik bestera eraman nahiko balu, aldez aurretik eskatu egin beharko du eta eskaeran ureztaketa-hartune berriaren kokapena eta kontagailuak une horretan erakusten duen neurketa adierazi beharko ditu.

Bide publikoa ureztatzeko kontratuek urte beteko indarraldia izango dute eta ez dituzte aurreko puntuan jasotako obligazioak bete behar. Alabaina, hilero jakinarazi beharko diote Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k kontagailuaren neurketa eta, urtean behin, Zerbitzuak erabakitzen duen garaian, kontagailua aurkeztu beharko zaio Zerbitzuan egiaztatu ditzaten.

55. artikulua. Kontratazioa.

Horniketa eskaera egin ondoren, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k, hamabost lanegunetako gehienezko epearen barne, horniketa gauzatzeko eskakizunak eta baldintzak jakinaraziko dizkio eskatzaileari.

Eskatzaileak, behin eskakizunen eta baldintzen jakinarazpena jaso ondoren, hogeita hamar egunetako epea izango du kontratua sinatzeko. Epe hori kontratua sinatu gabe igaroko balitz, eskaerak bere indarra galduko du Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-rentzako inolako obligaziorik sortu gabe.

Nolanahi ere, horniketa kontratu edo poliza horrek ez du indarrik izango, eskatzaileak, Ordenantza honetan xedatutakoarekin bat, konpondu edo bete behar dituen obligazio ekonomiko, tekniko eta administratiboak betetzen ez dituen bitartean.

Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa S.A.k ez dizkie emango, inola ere, ur hornikuntza edo eta saneamendu zerbitzuak, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa,

S.A.rekin diru kopururen bat zor duten eskatzaileei, honakoek emakida berenganatzeko eskubidearen jabe izateko baldintzak betetzen dituzten arren, zenbateko hori edo horiek (gerta litezkeen gastu, gainkargu eta guzti) kitatu ez diren bitartean.

Behin eskatzaileak eskubideak ordaindu eta dagozkion betebeharrak bete ondoren, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k instalazioa eta horniketa martxan jartzeko obligazioa dauka, beti ere, kontratazioa eta ordainketa egindako datatik hamabost lanegunetako epearen barne.

Nolanahi ere, lanak burutzeko behar diren baimenak lortzean atzerapenak izango balira, aurreko pasartean finkatutako epea etetzea ekarriko du. Eta atzerapen horren berri emango dio idatziz Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k eskatzaileari

56. artikulua. Kontratua Ukatzeko Arrazoiak.

Uraren horniketaren emakidarako ahalmena, indarrean dauden arauen arabera, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ri dagokio.

Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k horniketaren kontratazioa uka dezake, ondorengo kasu hauetan:

1. Horniketa eskatzen duen pertsonak edo entitateak, uraren horniketaren kontratazioari buruz indarrean dauden xedapenen arabera eta baimendutako eredu batean luzatutako kontratua sinatzeari uko egiten dionean, edo legez ezarritako dokumentazioa aurkezten ez duenean edo, azkenik, dagozkion ordainketak egiten ez dituenean.

2. Eskatzaile horren instalazioan, eta Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ren iritziz, behin egiaztatu ondoren, indarrean dagoen araudiak izaera orokorrez ezartzen dituen manamenduak betetzen ez direnean. Kasu honetan, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k aurkitutako hutsuneak adieraziko dizkio eskatzaileari zuzen ditzan.

3. Uraren horniketarako hartunerik ez duenean edo isurketen eta euri uren hustuketarako baimenik ez duenean.

4. Horniketaren eskatzaileak, aurrez, uraren horniketaren zenbatekoa ordaintzeari utzi diola egiaztatzen denean.

5. Horniketa eskatzen den lokalerako, aurretik eta indarrean dagoen beste horniketa kontratu bat dagoenean.

6. Horniketaren eskatzaileak legozkiokeen hirugarren pertsonen baimenik lortu dituela zehaztasunez egiaztatzen ez duenean.

7. Udaletxeak Horniketaren emakida desestatzen duenean.

57. artikulua. Kontrataziorako Kuota.

Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ri uraren horniketa eskatzen dioten pertsonek egin beharreko konpentsazio ekonomikoa izango da; kontratua gauzatzetik eratorriko izaera tekniko eta administratiboetako gastuak ordaintzeko, alegia

58. artikulua. Fidantzak.

Abonatutako pertsonak izan dezakeen edozein zorri erantzuteko, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k egokiesten duenean, abonatutako pertsonak fidantza edo banku abal bat jartzea behartuta egongo da, horren zenbatekoa zerbitzuaren arduradunek ezarriko dutelarik, kontuan izanik, kontagailuaren kapazitate nominala bider hamabi hilabetez hirurogei orduko erabilera emanda.

Noizbehinkako, behin behineko edo egoera jakin bati erantzuteko horniketetan, eta izaera horrekin eskatzen direnen kasuetan, erabilera edozein izanik eta aurreikusitako kontsumoen aurre-likidazioa egitearen kalterik gabe, findantzaren zenbatekoa, aurrez erabakitakoaren ondorioz ateratzen den zenbatekoaren bost halako izatera iris daiteke.

Inoiz eta salbuespen gisa, kontagailurik gabeko horniketarik baimenduko balitz, kontagailuaren kalibrearen baliokidetzat, hartunean erabilitako kalibrea iritziko da eta findantza, aurrez azaldutako irizpide berdinaren arabera kalkulatuko da

59. artikulua. Horniketa Kontratua.

Entitate Hornitzailearen eta abonatutako pertsonaren arteko erlazioa horniketa kontratuak edo ordainketa polizak arautuko dute.

Horniketa kontratua izango da, zerbitzuaren emakida legeztatuko duen agiri bakarra eta, Ordenantza honetan ezarritako baldintzaz gainera, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ren eta abonatutako pertsonaren arteko harremanak

arautuko dira. Aipatutako kontratu hori idatziz eta ale bikoitzean jasoko da; eta ale bat, behar bezala beterik, abonatutako pertsonari emango zaio, bertan, gutxienez, ondorengo datu hauek jaso beharko direlarik:

a) Entitate hornitzailearen identifikazioa:

Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.

I.F.K. A-20.471462

Portuetxe 16

Uraren telefonoa 902 302222

b) Abonatuaren identifikazioa:

Izen-deiturak edo egoitza soziala.

N.A.N. edo I.F.K.

Helbidea (hornitutako higiezina ez denean).

Ordezkariaren datuak, bere kasuan:

Izen-deiturak.

N.A.N. edo I.F.K.

Ordezkapenaren izaera.

c) Hornitutako finkaren datuak:

Helbidea.

Etxebizitza, letra, eskailera…

Etxebizitza kopurua, guztira.

Telefonoa.

d) Horniketaren ezaugarriak:

Tarifa.

Hartunearen diametroa, bere kasuan.

e) Neurgailua:

Fabrikazio zenbakia.

Kalibrea, milimetrotan emana.

f) Baldintza ekonomikoak.

Hartune eskubideak, bere kasuan.

Kontratazio Kuota, bere kasuan.

Zergak, bere kasuan.

Fidantza, bere kasuan.

g) Ordainketa tokia:

Helbideratutako ordainketaren datuak.

h) Kontratua sinatzen den tokia eta eguna.

i) Aldeen sinadurak.

j) Baldintza orokorrak

60. artikulua. Sinatu Beharreko Kontratuak.

Kontratuak horniketa mota bakoitzarentzako ezarriko dira eta, horrenbestez, tarifa edo baldintza bereziak aplikatu behar diren kasu haietarako, kontratu desberdinak sinatu beharko dira derrigorrez.

61. artikulua. Kontratuaren Sinatzaileak.

Horniketa kontratua Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k eta hornitu behar den finkaren, lokalaren edo industriaren erabilera eskubidearen titularrak, edo berau ordezkatzen duen pertsonak sinatuko dute

62. artikulua. Abonatutako Pertsonen Toki Aldaketa eta Erabiltzaileen Aldaketa.

Etxez aldatzean eta lokala kontratua sinatu zuen beste pertsona batek okupatzeak beste kontratu berri bat sinatzea dakar berez, edo/eta kasua balitz, aurrekoaren subrogazioa egitea; baina beti ere, Ordenantza honetan ezarritako betebeharrak betetzen badira.

Ezin izango da titularra aldatu edo lekualdatu eskaera horren xede den hornidura-helbidean zorrak daudenean.

Indarrean dagoen kontratua izenpetu zuen beste pertsona ezberdin batek lokala okupatzeko eskubidea duela egiaztatzen badu, aurreko kontratuaren baja eman daiteke eta alta berri bat egin, bere kostea ordainduz, Ordenantza honek ezarritakoaren arabera.

63. artikulua. Subrogazioa.

Ordainketa polizaren titularra hilko balitz, polizaren eskubide eta betebeharren subrogazioa egin ahal izango da, beti ere, heriotzaren dataren aurretik, gutxienez bi urteko epean, ohiko etxebizitzan elkarrekin bizi zitezkeen bere ezkontide, ondorengo, seme-alabatzako oso, aurreko eta anai-arreben artean. Nolanahi ere, elkarrekin bi urtetan bizitzeko betebehar hori ez da betetzea derrigorrezkoa izango, zenduaren guraso-agintepean egon zitezkeenentzat ez eta ezkontidearentzat ere.

Era berean, beste oinordeko legatudun batengan ere subroga daitezke eskubideak eta betebeharrak, beti ere hornidura egiten den etxebizitzaren edo lokalaren jabetza edo eskubidea beretzat hartzen badu.

Entitate juridikoen kasuan, subrogatzen duenak edo eskubideetan eta betebeharretan hura ordezkatuko duenak, gauza bera egin dezake ordainketa polizari dagokionean, baina, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-n beharrezko liratekeen baimen administratibo guztiak aurkeztearen baldintzapean.

Subrogaziorako epea, gertaera izan eta hamabi hilabetekoa izango da

64. artikulua. Kontratuaren Xedea eta Irismena.

Horniketa kontratuak etxebizitza, lokal, industria edo unitate bereizitua osatzen duen obra bakoitzeko sinatuko dira.

Horniketa bakoitza eman zeneko helburuei atxikituta geratuko da; beraz, debekatuta dago beste helbururekin erabiltzea edo bere irismena aldatzea. Horrelakorik egin nahiko balitz, eskaera berri bat egin eta, kasua balitz, legokiokeen kontratu berria sinatu beharko da

65. artikulua. Kontratuaren Iraupena.

Horniketa kontratuaren iraupena behin betikoa izango da, bestelako eperik finkatzen duen erabaki espresurik izan ezean. Alabaina, abonatutako pertsonak edozein garaitan erabaki dezake kontratuaren iraungipena, nahiz eta horretarako, erabakiaren berri Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ri eman beharko dion hilabeteko aurrerapenarekin eta egon daitezkeen zorral aldez aurretik kitatu ondoren.

Obretarako horniketa, eremu mugikorretako aldian aldiko ikuskizunetarako eta, oro har, noizbehinkako jardueratarako denean.

Denbora jakinerako kontratuak luzatu ahal izango dira horniketaren titularrak eskatuz gero, baina arrazoi zurigarriak izanik Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k baimen espresua ematen badu

66. artikulua. Horniketaren Etenaldirako Arrazoiak.

Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k, indarrean dagoen legediak babes diezaizkiokeen izaera zibil edo administratiboko akzioei ekitearen kalterik gabe, abonatutako pertsonen horniketa eten ahal izango du ondorengo kasu hauetan:

a) Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k fakturak ordaintzeko finkatutako epean ordaintzen ez direnean.

b) Bere izenean horniketa izateko tartean kontratu idatzirik ez dagoenean eta Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ren errekerimenduari jaramonik egin gabe kontratua sinatzeari uko egiten dionean.

c) Iruzurrik egin edo iruzurrean berrerori dela egiaztatu ondoren egiten zaion likidaziotik eratorritako kopuruak, jakinarazpenaren datatik aurrera hurrengo hamabost laneguneta n, ordaintzen ez direnean.

d) Abonatutako pertsonak hornitzen zaion urari, kontratu duen helburu eta erabilera desberdina ematen dion kasu guztietan.

e) Abonatutako pertsonak uraren horniketarako bere instalazioan, eta horniketa kontratuan jasotako beste finka, lokal edo etxebizitzetarako desbideraketak egiten eta egitea uzten duenean.

f) Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ko pertsonalak horniketako sareetan kontraturik gabeko ur kontsumoak egiaztatzen dituenean, hau da, eskutuan egindako hartuneak aurkitzen dituenean. Kasu honetan, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k berehala eten ahal izango du ura aipatutako desbideraketetan.

g) Abonatutako pertsonak kontratatutako horniketa kontrolatzen den lokalean, Entitateak baimendutako eta dagokion nortasun dokumentazioa erakusten duen pertsonalari, laneko orduetan edo kanpoko harremanak izateko ordutegi normalan, instalazioak ikuskatzera sartzen uzten ez dionean. Kasu honetan, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k gertakarien akta jaso beharko du.

h) Abonatutako pertsonak, Entitatearekin sinatuta daukan kontratuko erabakiak edo zerbitzua erabiltzeko baldintza orokorrak, edozein gai delarik ere, betetzen ez dituenean.

i) Urari ematen zaion erabileragatik edo barneko instalazioen egiturarengatik banaketa sareko uraren edangarritasunean eragin kaltegarririk sor daitezkeenean. Etenaldiak abonatutako pertsonek egoera horiek ez daitezen gertatu, neurri egokiak hartzen dituzten bitartean iraungo du. Kasu honetan Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k berehala eten dezake horniketa.

j) Abonatutako pertsonak erregistroa edo kontagailuaren kutxeta eta are barneko instalazioa, aldatzeari uko egiten dionean; beti ere, Ordenantza honek baimentzen dituen arrazoiengatik kontagailua aldatu behar den kasuetan.

k) Abonatutako pertsonak beste jatorriko urak nahasten dituenean eta Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k hutsegite hori konpontzeko errekerimendua egin arren, bost egunetako gehienezko epean ez bada arazoa konpontzen.

i) Kontagailuaren irakurketa egiteko prozedura arruntari jarraiki hamabi hilabeteko epean ezinezkoa gertatzen denean, abonatutako pertsonari egoz dakizkiokeen arrazoiengatik. Kasu honetan Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k eten ahal izango du horniketa izaera iragankorrez eta, abonatutako pertsonak, bere

kargura eta kontura, neurgailuen instalazioan, irakurketa egiteko sarbiderako oztopoak kenduz, aldaketak egiten ez dituen bitartean.

m) Abonatutako pertsonaren utzikeriagatik; hau da, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k , idatziz, bere instalazioetan dauden matxurak konpontzeko errekerimendua egin arren, zazpi egunetako epea igaroko balitz matxura konpondu gabe.

67. artikulua. Horniketaren Etenaldirako Prozedura.

Ordenantza honetan aurreikusitako berehalako horniketa etenaldien kasuetan ezik, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k hartutako erabakiaren jakinarazpena igorriko dio abonatutako pertsonari. Eta jakinarazpena jaso eta hurrengo hamabots lanegunetan akatsak bere hartan badirau, horniketa etengo da.

Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k, berehalako etenaldiko kasuetan salbu, ezingo du uraren horniketa eten jaiegunetan edo, edozein arrazoi tarteko, jendearen harrerarako zerbitzu administratibo eta teknikorik ez dagoen egunetan, --beti ere zerbitzua berrezartzeko izapidaketa osoa egin ahal izateko--, ez eta mota horretako egoeraren bat sortuko den egunen bezperatan.

Zerbitzua egun berean berrezarriko da edo, ezinezkoa balitz, horniketaren etenaldirako izan ziren hutsegiteak bere onera ekarri izana egiaztatu den egunaren hurrengo lanegunean.

Horniketaren etenaldirako aurre jakinarazpenean, gutxienez, honako puntu hauek jasoko dira:

- Abonatutako pertsonaren izen-deiturak eta helbidea.

- Etenaldirako arrazoi zehatza.

- Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ko bulegoen helbidea, telefonoa eta ordutegia, etenaldia eragin zuten arrazoien jakinarazpena konpondu ahal izateko.

Horniketaren birkonexioa Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k egingo du. Birkonexioa egiterakoan, kontagailu berri bat instalatu beharko da edo, bestela, kendutako bera ipiniko da berriro, Industria Ordezkaritzak berriro egiaztatu ondoren. Abonatuak ordainduko ditu kontagailu berria, egiaztapena, altako kuota eta kontagailua kentzeko eta berriro instalatzeko gastuak.

Etenaldiaren arrazoia ordainketarik ez egitea bada, kontratua iraungitzat emango da, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k zorra ordaintzeko eta sor zekizkiokeen kalte eta galeren kalteordainak exijitzeko eskubidea erabiltzearen kalterik gabe. Baldin eta etenaldiaren egunetik hasi eta hiru hilabeteko apean abonatuak ordaintzeko zeuden agiriak ordaindu baditu, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k kontratua berriro indarrean ipini dezake.

68. artikulua. Horniketa Kontratuaren Iraungipena.

Uraren hornidurarako kontratua da, eta Ordenantza honetako 67. Artikuluan zehaztutako arrazoiengatik horniketa etetzeko bideak erabiltzearen kalterik gabe, honako arrazoi hauengatik iraungi daiteke:

1. Abonatutako pertsonaren eskaeraz, beti ere zorrak ordaintzeke ez daudenean.

2. Entitate hornitzailearen erabakia tarteko, honako kasu hauetan:

a) Ordenantza honetako 66. artikuluan araututako horniketa etenaldirako edozein arrazoirengatik.

b) Horniketa kontratuan jasotzen diren epeak eta baldintzak betetzen direnean.

c) Zerbitzua kontratatzerakoan zeuden zerbitzu eta instalazioen erabilera aldatzen denean, bai eta, horniketa kontratatu zeneko finkaren eraispen, zabalpen edo erreformarik izaten denean.

Behin, aipatutako edozein arrazoiarengatik kontratua iraungitzen bada eta horniketa berriro izan nahi bada, bakar bakarrik, eskaera berri bat eginez, kontratu berri bat sinatuz eta legozkiokeen eskubideak ordainduz lortu ahal izango da.

X. ATALBURUA: HORNIKETAREN ERREGULAR-TASUNA.

69. artikulua. Zerbitzuaren Maiztasuna.

Ezinbesteko arrazoiak tarteko edo instalazio publikoetan izan daitekeen matxurarik salbu, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k, zerbitzuari etenaldirik gabe eusteko obligazioa dauka, beti ere, horniketa kontratuetan edo polizetan bestelakorik ezartzen ez den bitartean.

70. artikulua. Denbora Jakinerako Etendurak.

Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k zerbitzuaren denbora jakinerako etendurak egin ahal izango ditu, bere kargura dauden instalazioen mantenimendu, konponketa edo hobekuntza lanak egiteko.

Aurreikusitako eta programatutako etenduretan, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, EA.-k etetearen berri eman beharko die erabiltzaileei, bere eskura dauden bideak erabiliko ditu etetea nahiko denborarekin iragartzeko eta haren berri jasoko dela bermatzeko moduan.

Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ren kargura dauden instalazioetan izandako matxuren eraginez horniketa eten behar denean, halabeharrezko arrazoiak ez direnean tarteko eta bederatzi egunetatik gorako epean izango direnean, abonatutako pertsonak, Ordenantza honetak 88. Artikuluan zehazten den kuota finkoa edo zerbitzuko kuotaren zati proportzionala itzul dakion eskatzeko eskubidea izango du.

71. artikulua. Ur Erreserbak.

Sektore bakoitzaren arauketa berezian ezartzen denaren kalterik gabe, ura osasun publikorako edo pertsonen eta ondasunen segurtasunerako behar ezinbesteko eta etengabekoa den jarduera burutzen den lokal guztietan eta, bereziki, Ospitaleetan, gai suharkorren eta erregaien biltegietan eta merkataritza zentru handietan, erreserbako ur depositoak jarri beharko dira eta, gutxienez, estali behar diren behar minimoei hogeita lau ordutik gora erantzuteko adinako autonomia emango dizkien moduko depositoak izango dira.

Era berean, produzkio prozesuan edo jardueran ura ezinbesteko elementu den industrietan edo jardueretan ur erreserbak egokitu eta dimentsionatu egin beharko dira, beti ere, autohorniketa, gutxienez, hogeita lau ordutan bermatzeko moduan.

72. artikulua. Murrizketak Horniduran.

Lehorteak, ur emariaren urritasunak edo trataerako zailtasunak horrela eskatzen duenean, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k murrizketak ezarri ahal izango ditu abonatutako pertsonen horniketa zerbitzuan.

Kasu honetan, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k aplikatu behar dituen neurriak, ahalik eta modurik argienean, abonatutako pertsonei azaltzeko obligazioa dauka, bai eta, murriztaketak hasiko diren daten berri emateko ere, eta horretarako komunikabideak erabiliko ditu. Komunikabideen bidez azaltzea ezinezkoa

izango balitz, Entitateak abonatutako pertsona bakoitzari jakinarazi beharko dio gutun pertsonal baten bidez.

Horniketa etetzeko arrazoia nahikoa ur emaririk ez izatea denean, erabiltzaileen beharrei erantzuteko, kontratatutako erabileraren modalitateari jarraituko zaio, eta Iparraldeko III. Plan Hidrologikoan edo, kasuan kasu, Euskal Autonomia Erkidegoko Plan Hidrologikoan adierazitako aprobetxamenduen lehentasunen alderantzizko hurrenkera etengo da

XI. ATALBURUA: IRAKURKETAK, KONTSUMOAK ETA FAKTURAZIOAK.

73. artikulua. Irakurketaren Maiztasuna.

Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k irakurketarako sistema iraunkor eta aldizkakoa ezartzeko obligazioa dauka, beti ere, abonatutako pertsona bakoitzaren kontagailuaren irakurketa, ahal den neurrian, ziklo berdinetan egin dadin.

74. artikulua. Irakurketako Ordutegia.

Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k espresuki baimendutako pertsonalak irakurketa lanegunetan eta laneko edo kanpoko harremanetarako ordutegi normalean egingo du; nolanahi ere, langile hauek bere identifikazio agiriak izango dituzte.

Abonatutako pertsonak ezingo du, inoiz, irakurketa egiteko obligazioa ezarri Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k horretarako erabakita daukan ordutegitik kanpo.

Behin behineko horniketarako baimena ematen den kasuetan eta horniketa neurgailu mugikorren bidez egiten denean, abonatutako pertsonak dagokion kontratuan edo emakidan finkatzen diren toki edo lokaletan eta aipatutako agiri horretan bertan finkatzen diren egunetan, neurgailu mugikorrak aurkeztu beharko ditu irakurketa egin dadin.

75. artikulua. Abonatutako Pertsonek egindako Irakurketa.

Abonatutako pertsona bertan ez dagoelako irakurketa egitea ezinezkoa izango balitz, pertsonal arduradunak abonatutako pertsonaren etxebizitzaren ate azpitik txaltel bat sartu edo postontzian txartela utziko du abonatuak irakurketaren datuak eman ahal izateko.

76. artikulua.Kontsumoaren Zehaztapena.

Oro har, abonatutako pertsonak egiten duen kontsumoaren zehaztapena, fakturazioko jarraiko bi epeen artean izandako irakurketen diferentziaren arabera egingo da.

Edozein arrazoirengatik irakurketa hartu ezin bada eta abonatuak eman ez badu, fakturatutako azken irakurketa errealetik aurrera zehaztuko da kontsumoa. Kasu horietan, kontsumoa aipatutako azken irakurketa errealaren eta egungo irakurketaren arteko aldea izango da.

Abonatuaren ohiko kontsumoa aldatzen duen ezkutuko matxura bat dagoela egiaztatzen bada, fakturatutako kontsumoak ezingo du %400 gainditu ondoren zehazten diren aukeretatik handiena:

a) Azkenengo lau hiruhilabeteetan fakturatutako kontsumoaren batez bestekoaren emaitza.

b) Urteko hiruhilabeteko berdinean fakturatutako azken bi kontsumoen batez bestekoaren emaitza.

Fakturatuko den kontsumoa %400-ea mugatzea soilik ezkutuko matxura egon den bide hiruhilekotan izango du eragina, eta fakturatuko den hiruhileko bakoitzari dagokio.

Aipatutako irizpidea abonatuak kontratatua dituen kontzeptu guztietan izango du eragina (Ura, Arazketa eta Finantzaketa plana).

Matxura hauek inbertsio faltagatik errepidatzen badira, fakturan aipatutako kontsumo mugaketa ez da egingo.

77. artikulua. Balioetsitako Kontsumoak.

Kontagailuen irakurketa egin ezin denean eta abonatuak ematen ez duenean, kontsumoak balioetsi ahal izango dira denbora epe berean eta urteko sasoi berean izandako kontsumoaren arabera edo fakturazioak likidatuko dira aurreko 12 hilabeteetan izandako kontsumoaren batez beste aritmetikoaren arabera, aurreko hilabete guztietako irakurketak baldin badaude betiere.

Benetan izandako kontsumoa zein den jakitea ezinezkoa bada, neurgailuan matxuraren bat dagoelako, irakurketa egin nahi izan zen momentuan abonatutako

pertsona behin eta berriz ez zegoelako bertan edo Gipuzkoako Ura-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ri egotz dakizkiokeen bestelako arrazoiengatik, kontsumoaren fakturazioa, denbora epe berean eta urteko sasoi berean izandako kontsumoaren arabera egingo da edo fakturazioak likidatuko dira aurreko 12 hilabeteetan izandako kontsumoaren batez beste aritmetikoaren arabera, aurreko hilabete guztietako irakurketak baldin badaude betiere.

Ondorengo kasu hauetan, kontagailuaren kapazitate nominala hilean hogeita hamar orduko erabilera izango balu bezalako kontsumoa fakturatuko da: aurreko paragrafoan aipatzen den batez bestekoa lortzeko datu historikorik ez dagoenean; abonatuari eskatu bere barne instalazioetan kontagailua aldatzeko egin beharreko konponketak egiteko, kontagailua matxuratu delako edo aldatu beharra dagoelako, eta 30 eguneko epean ezer egin ez duenean; eta lehen aipatutako arrazoiengatik kontagailua aldatzen saiatu eta abonatuak 30 egunez sartzen utzi ez duenean.

Modu honetan balioesten diren kontsumoek izaera irmoa izango dute kontagailua aldatu beharra dagoen kasuetan. Eta bestelako balizkoen kontura, non behin irakurketa errela egin ondoren egoera normalizatuko baita, hala gehiegizko nola gutxienezko kasuan, ondorengo aldi bakoitzean egiten den irakurketaren arabera zehaztuko dira kontsumoak.

Kontsumoen balioespenari ere ekin ahal izango zaio, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-n abonatutako pertsonak emandako neurgailuen datuak ikusirik, bertan irudikatzen diren kontsumoek, abonatutako pertsonak izan ohi duen kontsumo erregimenarekin bat ez datozenean. Estimazioa egin ahal izango da kontagailuaren irakurketa lortu ezin denean, kokalekua edo egoera dela eta.

Aurreko pasartean aipatzen diren kasuetan, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k, epe edo aldi horretako fakturazioa egiteko xedez, kontsumoen balioespena edo hurrengo aldira atzeratzea erabaki dezake, azkeneko aldi horretan bilduko direlarik bi aldi horietako kontsumoak.

78. artikulua. Fakturazioaren Xedea eta Maiztasuna.

Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k XIII. Atalburuan jasotzen eta kasu bakoitzari egokitzen zaizkion kontzeptuak fakturatuko ditu, horniketa motaren eta une bakoitzean indarrean dauden tarifen arabera.

Kontsumoak amaitutako horniketa epeeka fakturako dira eta aldiaren iraupena ez da lau hilabeteetatik gorakoa izango. Lehenengo aldia instalazioa martxan jarri zen

egunetik aurrera kontabilizatuko da. Tarifa aplikagarria izango da denboraldia amaitzean indarrean dagoena.

79. artikulua. Fakturen eta Ordainagirien Betebeharrak.

Hornidura eta saneamendu zerbitzuak jasotzetik abonatutako pertsonari egozten zaizkion zorrak jasotzen diren ordainagirietan, indarrean dagoen legediak une bakoitzean exijitzen dituen zehaztasunak jasoko dira eta, bide batez, prezioak, kontsumoak eta erabiltzailearentzako interesgarriak izan daitezkeen gainontzeko datuak jaso beharko dira modu argi eta ulergarrian.

80. artikulua. Informazioa Ordainagirietan.

Fakturazio kontzeptuetan edo formetan aldaketa handiak edo garrantzitsuak izaten direnean, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k, tarifak aplikatzeko moduari eta fakturazioan jasotzen diren kontzeptuak babesten dituzten eta indarrean dauden xedapenei buruzko informazioa emango die abonatutako pertsonei.

81. artikulua. Ordainketa Epea.

Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k, abonatutako pertsonei ordainagirien zenbatekoa ordaintzeko daukaten denbora-epearen berri emateko obligazioa dauka.

Jakinarazpen hau kobrantzarako banakako deien bidez edo herrian zabalkunderik handiena duen komunikabidean publizitate orokorra txertatuz, edo/eta indarrean dagoen legediak onartzen duen bestelako jakinarazpen prozeduraren bidez egin ahal izango da.

Ordainketa banku batean helbideratuta dagoenean ez da derrigorrezkoa izango informatzeko obligazio hau.

Ordaintzeko denbora-epea amaitu ondoren, ordaindu gabe dauden erreziboak betereazle bidea jarraituko dute, zenbatekoa 2/2005 Foru Araua, martxoaren 8koa, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak ezarritakoaren arabera izango delarik.

82. artikulua. Fakturen edo Ordainagirien Ordainketa Modua.

Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k fakturatutako zenbatekoa ondorengo sistemen bidez ordaindu ahal izango du abonatutako pertsonak:

- Zerbitzuak gaitutako Banketxe edo Kutxan ordainduz.

- Abonatutako pertsonak adierazten duen kontuan helbideratuz.

Borondatezko aldian edo epe betearazlean dauden zorrak geroratu edo zatikatu ahal izango dira ezartzen diren baldintzetan eta obligaziodunak aldez aurretik eskatuta, baldin eta haien egoera ekonomiko-finantzarioak eragozten badio ordainketa ezarritako epeetan egitea.

Gipuzkoako Urak-ek zorren beste geroratze edo zatikatze bat ukatu ahal izango du, baldin eta zorren ordainketa-plana bete ez bada.

83. artikulua. Fakturazioko Hutsegiteen Zuzenketa.

Hutsegite baten ondorioz Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k zorretan diren kopuruak baino gutxiago fakturatuko balitu, diferentziaren ordainketa zatikatu ahal izango da. Nolanahi ere, ordainketarako epea, bestelakorik erabakitzen ez den bitartean, faktura okerrak aurkeztu diren denbora berean luzatu ahal izango da, nahiz eta bi urtetako gehienezko epearen barne.

Akats baten ondorioz Gipuzkoako Urak, S.A.-k behar bezalako kopuruak baino handiagoak fakturatu balitu, nahastutako fakturak deuseztatu egingo dira eta berriro zuzenki egingo dira, abonatuari diferentzia itzuliz. Inolaz ere, atzeraeragineko epea ez da 2/2005 Foru Araua, Martxoaren 8koa, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak ezarritakoa baino gehiagokoa izango

84. artikulua. Aldez Aurretik Erabakitako Kontsumoak.

Bere izaera behin behinekoa delako, edo izaera prekarioan eman delako, edo bestelako salbuespenagatik, bolumen edo emari finko baten, edo erabilerako denbora unitateko kopuru zehatz baten horniketa kontratatzen den kasuetan, ezingo zaizkie hitzartutako kontsumoei bestelakoak egotzi, iruzurrezko erabilera edo ezarritako kontratua betetzen ez denean salbu.

Era berean, horniketa hauek kontratatzen dituen pertsonak ezingo du inolako arrazoirik eman edo zirkunstantzirik argudiatu, hitzartutako kontsumoetan edo kopuruetan murriztapenik egiteko.

Kasu hauetan fakturazioa aldez aurretik egin ahal izango da, horniketaren emakida bera jakinarazten den une beran.

XII. ATALBURUA: IRUZURRAK URAREN HORNIKETAN.

85. artikulua. Iruzurraren definizioa.

Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k iruzurra egon dela ulertuko du kasu hauetan:

1. Uraren horniketarako kontraturik ez izatea.

2. Edozein prozedura erabiliz, kontagailua edo neurgailuaren erregistroa maneiatzea edo aldatzea.

3. Emarian eta neurgailuaren aurretik desbideraketak egitea, izaera iraunkorrez nahiz egoera bati erantzuteko.

4. Urari kontratatutako bestelako erabilerak ematea, aplikatu beharreko tarifaren arabera kontsumoen fakturaketan eragina izanik.

5. Edozein arrazoirengatik kontagailuaren kokapena aldatu izana.

Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ko pertsonalak deribazioak antzematen dituenean bere sareetan kontraturik gabeko hornidura baliatuz, hau da, modu klandestinoan eginiko deribazioak, berehala moztu ahal izando du hornidura deribazio horietan.

Iruzur salaketa bat egiaztatzean pertsonal fakultatiboari pertsona abonatu baten etxebizitzan sartzea galarazten bazaio, hornidura eten ahal izango da.

86.artikulua. Iruzurragatiko Likidazioa

Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k dagokion likidazioa egingo du, kasu bakoitzaren arabera eta honako era honetan:

1 kasua. Iruzurragatiko likidazio bat egingo da eta bertan iruzurrezko egintza horretan erabili beharko liratekeen instalazioei arauz egokituko litzaizkiokeen kontagailuen kapazitate nominaleko kontsumoa egotziko da, beti ere, titulartasuna edo aipatutako instalazioen erabilera eskubideak eskuratu eta detektatutako iruzurra zuzendu bitarte igarotako denboran eguneko hiru ordutako kontsumoa izan dela iritziz; nolanahi ere, ez da urte betetik gora luzatuko aipatutako epe hori.

2 kasua. Instalatutako kontagailuko edo aparailuko markaketak faltsutu badira, berauen funtzionamendu okerra eragiten duten prozedura edo gailuak erabiliz, edo kontagailuaren kokalekua aldatzea, iruzurraren zenbatekoaren likidazioa finkatzeko oinarri gisa nominalaren kapazitatea hartuko da eta kontagailuaren azken egiaztapen ofiziala egin eta iruzurra zuzendu bitarte igarotako denboran eguneko hiru ordutako kontsumoa izan dela iritziko da; nolanahi ere, iruzurraren egileari denbora-epe horretan ordaindu dituen kontsumoak deskontatuko zaizkio.

3 kasua. Iruzurra egin bada emaria kontagailuaren aurretik desbideratuz, lehen kasuan bezala likidatuko da horniketa kontraturik izango ez balitz, eta ez da kontagailuan neurtutako uraren deskonturik egingo.

4 kasua. Kasu honetan, erabilera okerra eman zaion ur kopuruaren likidazioa Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ren alde egingo da eta, hala, urari ematen zaion benetako erabilerari aldi bakoitzean dagokion tarifaren eta kontratatutako erabilera kontutan izanik aplikatu zaion tarifaren arteko diferentzia kontsumoari aplikatuz egingo da. Aldi edo denbora-epe hori ezingo da urte betetik gorakoa izan.

Kontagailuaren emari nominaltzat hartuko dira, kontrakorik erakusten duen frogarik aurkezten ez den bitartean, ondorengo taulan kontagailuaren diametroaren arabera, jasotzen direnak.

Kalibrea/mm.	Emari nominala (m3/h)
13 mm.	1,5
15 mm.	1,5
20 mm.	2,5
25 mm.	3,5
30 mm.	6,0
40 mm.	10,0
50 mm.	50,0
65 mm.	65,0

80 mm.	120,0
100 mm.	180,0
125 mm.	180,0
150 mm.	250,0
200 mm.	480,0

Kasu guztietan eta aurreko pasartean ezarritako manamenduen arabera ondoriozta daitekeen zenbateko horri, saneamenduko tasa eta gainontzeko zergak aplikatuko zaizkio eta, ondorioz, egiten diren likidazio horietan jaso beharko dira.

Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k egiten dituen likidazioak interesatuei jakinaraziko zaizkie eta, hauek bere aldetik, erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

XIII. ATALBURUA: TARIFAK EZARTZEKO SISTEMAK.

87. artikulua. Baldintza Orokorrak.

Ordenantza honetako ondorioe-tarako, tarifa-sistema izango da, abonatutako pertsonak ordaindu beharreko prezioa osatzen duten kontzeptuen multzoa, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k bere zerbitzuak eskaintzeko oreka ekonomikoa eta fintzantzieroa lortzeko eta hari eusteko ordaintzen dena, alegia.

Udalerri bakoitzak erabakiko du kontsumo-tarteak etxebizitza bakoitzean erroldatutako persona kopuruaren menpekoak izango diren ala ez.

87.1 Familia ugariak eta nekazal eta abeltzain ustiapenak.

Kontsumo-tarteak etxebizitza bakoitzean erroldatutako persona kopuruaren menpekoak ez diren Udalerrietan, familia ugarien etxeko (3 seme-alaba edo gehiago) eta nekazal eta abeltzain ustiapen kontsumoak 30 m³tik gorakoak, lehenengo zatirako ezarritako prezioan fakturatuko dira 90 m³ arte. Hortik aurrera 90 m³ baino gehiagoko zatiaren prezioan fakturatuko da.

Interesatuek artikulu honetan ezarritakoa eskatu beharko dute egiaztatuz urtero familia ugarien izaera betetzen dutela

87.2. Jabekideen erkidegoak.

Kontsumo-tarteak etxebizitza bakoitzean erroldatutako persona kopuruaren menpekoak ez diren Udalerrietan kontsumoaren faktura zatika egiten denez, jabekideen erkidegoen etxeko kontsumoak lehenengo zatirako ezarritako prezioan fakturatuko dira. Ur beroaren kontsumoa kontagailu orokorretik pasatzen den jabekide erkidegoen kasuetan berdin jokatuko da.

Kontsumo-tarteak etxebizitza bakoitzean erroldatutako persona kopuruaren menpekoak diren Udalerrietan, kontsump-tarte hauek, tarte bakoitzean persona eta eguneko ezarritako kontsumoa, erkidegoaren biztanle kopuruarengatik eta fakturatutako aldiko egunak kontutan hartuta zehaztuko dira.

87.3. Kontsumo tarteak.

Kontsumo-tarteak etxebizitza bakoitzean erroldatutako pertsona kopuruaren menpekoak ez diren Udalerrietan, kontsumoko tarte bakoitza, 90 egunekoari dagokio.

Kontsumo-tarteak etxebizitza bakoitzean erroldatutako pertsona kopuruaren menpekoak diren Udalerrietan, kontsump-tarte hauek tarte bakoitzean pertsona eta eguneko ezarritako kontsumoa, etxebizitzaren biztanle kopuruarengatik eta fakturatutako aldiko egunak kontutan hartuta zehaztuko dira. Etxebizitzako biztanleen kopurua Udaletxeak emandako azken udal-erroldak dagoena izango da.

Etxeibiztzan ez balego inor erroldatuta, kontsumo osoari aplikatzeko prezioa tarte haundiarena izango da (biztanleko eta eguneko 330 libro baino gehiago).

88. artikulua. Ura (Adukzioa, tratamendua eta banaketa).

Gordetzeko, ur edangarria tratatzeko eta abonatuenganainoko banaketa kostuei dagokion kopurua da.

88.1 artikulua. Kuota Finkoa.

Erabiltzaileek erabilgarriasunagatik, aldian aldian eta berdin zerbitzua erabiltzen edo erabiltzen ez bada, ordaindu behar duten kopuru finkoa da. Prezioa uraren erabilera, kontagailuaren diametroa eta hornitutako uraren motaren arabera aldatuko da.

Udaleko ur-hargunetan emandako altak, kuota hau ordaintzetik salbuetsita egongo dira.

88.2. artikulua. Kuota Aldakorra edo Kontsumoko Kuota.

Abonatutako pertsonak aldian aldian izan duen kontsumoaren arabera ordaintzen duen kopurua da. Prezioa uraren erabilera, kontsumitutako ur-kantitatea eta hornitutako uraren motaren arabera aldatuko da, eta baita ere biztanleen kopuruaren arabera, kontsump-tarteak etxebizitza bakoitzean erroldatutako persona kopuruaren menpekoak diren udalerrietan.

88.3 Prezioak gaurkotzea

Gipuzkoako Ur Kontsortzioari kontzeptu honi buruzko zenbatekoak urtero gaurkotzeko baimena ematen zaio, Kontsumorako Prezioen Indizea, Instalazio berriak eta Horniketa Sistemak martxan jartzeko eta ustiatzeko eratorritako kostea edo zerbitzuan izandako funtsezko hobekuntza eta, bere kasuan, legegintza berria erreferentzi moduan hartuz, guzti hori prezioaren gehikuntza arrazoitzen duen nahitaezko ekonomiko-finantza txostenean jasota.

89. artikulua. Saneamendua eta Arazketa.

Hondakin urak jasotzeko, garraiatzeko eta arazteko kostuei doakien kopurua da.

89.1. artikulua. Kuota Finkoa.

Erabiltzaileek erabilgarritasunagatik, aldian aldian eta berdin zerbitzua erabiltzen edo erabiltzen ez bada, ordaindu behar duten kopuru finkoa da. Prezioa uraren erabilera eta kontagailuaren diametroaren arabera aldatuko da.

Udaleko ur-hargunetan emandako altak, kuota hau ordaintzetik salbuetsita egongo dira.

89.2. artikulua. Kuota Aldakorra.

Abonatutako pertsonak aldian aldian izan duen kontsumoaren arabera ordaintzen duen kopurua da. Prezioa uraren erabilera eta kontsumitutako ur-kantitatearen arabera aldatuko da, eta baita ere biztanleen kopuruaren arabera, kontsump-tarteak etxebizitza bakoitzean erroldatutako persona kopuruaren menpekoak diren udalerrietan.

89.3 Prezioak gaurkotzea

Gipuzkoako Ur Kontsortzioari kontzeptu honi buruzko zenbatekoak urtero gaurkotzeko baimena ematen zaio, Instalazio berriak eta Hondakin Uren Arazketa Sistema beharrezkoak martxan jartzeko eta ustiatzeko eratorritako kostea edo zerbitzuan izandako funtsezko hobekuntza eta, bere kasuan, legegintza berria erreferentzi moduan hartuz, guzti hori prezioaren gehikuntza arrazoitzen duen nahitaezko ekonomiko-finantza txostenean jasota.

90. artikulua. Hornidura eta Saneamenduko Azpiegituren Finantzaketa Plana.

Ur edangarria hornitzeko eta hondakin urak arazteko, modu egokian, beharrezko den azpiegitura berria jartzeko kostuei doakien kopurua da eta abonatu guztiek solidaritatez ordaindu behar dutena.

90.1. artikulua. Kuota finkoa.

Erabiltzaileek aldiro ordaindu behar duen kopuru finkoa da. Prezioa uraren erabilera eta kontagailuaren diametroaren arabera aldatuko da.

Udaleko ur-hargunetan emandako altak, kuota hau ordaintzetik salbuetsita egongo dira.

90.2. artikulua. Kuota Aldakorra.

Abonatutako pertsonak aldian aldian izan duen kontsumoaren arabera ordaintzen duen kopurua da. Uraren erabilera eta kontsumitutako ur-kantitatearen arabera aldatuko da, eta baita ere biztanleen kopuruaren arabera, kontsump-tarteak etxebizitza bakoitzean erroldatutako persona kopuruaren menpekoak diren udalerrietan.

90.3 Prezioak gaurkotzea

Gipuzkoako Ur Kontsortzioari kontzeptu honi buruzko zenbatekoak urtero gaurkotzeko baimena ematen zaio, Kontsumorako Prezioen Indizea, Hornidura eta Arazketa gaietan beharrezko den inbertsio berria eta finantza-merkatuko Interes motak, guzti hori prezioaren gehikuntza arrazoitzen duen nahitaezko ekonomiko-finantza txostenean jasota.

91. artikulua. Zergak.

Fakturatzen diren kontzeptu desberdinei une bakoitzean aplikagarri zaizkien zergak jasoko dira fakturetan

XIV. ATALBURUA: ERREKLAMAZIOAK ETA JURISDIKZIOA.

92. artikulua.Baldintza Orokorrak.

Toki Administrazioaren gaietan indarrean dagoen legedian ezartzen den prozedurarekin bat etorriz, eta Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ren jardueren eta erabakien aurka egiteko egoki irizten diren bideak hautatzearen kalterik gabe, zerbitzuak eskaintzeko baldintzen inguruan sortzen diren erreklamazioak, zalantzak eta interpretazioak, kasu bakoitzean eskudun den Administrazio Publikoko organoak erabakiko ditu bide administratiboan.

Aurreko pasartean ezarritakoaren kalterik gabe, Justiziako Auzitegiei dagokie, beren jurisdikziopeko gai propioetan eta alde interesatuaren eskaerari erantzunez, esku hartzea.

Nolanahi ere, eta Ordenantza honetan arautzen diren zerbitzuetatik eratorritako harremanen ondorioz Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren eta abonatutako pertsonen artean sortzen diren auziak, Donostiako, Tolosako, Eibarko, Bergarako eta Azpeitiko Epaitegi eta Auzitegien jurisdikziopean egongo dira, beste ezeini uko eginez.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

1. Arau hau indarrean jartzen den egunean, eraikuntza ezaugarriei dagokionean exijitzen diren betebeharrak betetzen ez dituzten kutxetak, erregistro kaxak eta kontagailuen bateriak jasotzen dituzten gelak, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k homologatutako sarraila sistema hartu beharko dute.

2. Ordenantza hau indarrean jartzen den egunean kontratu edo polizarik ez duten abonatutako pertsonek ez dute sinatu beharrik izango horniketaren erabileran aldaketarik izaten edo egungo eskubideen eskualdaketa edo subrogazioa izaten ez den bitartean. Nolanahi ere, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k horniketaren egoera erreala argitzeko beharrezkoa iritziko balu, kontratuta sinatzeko proposamena egin ahal izango du.

XEDAPEN DEROGATZAILEA

Ordenantza hau indarrean jartzen den egunean, indar eta baliorik gabe geratuko dira, Ordenantza honen aurka doazen bere pareko edo maila txikiagoko xedapen, erregelamendu eta ordenantza guztiak.

AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau indarrean jarriko da, behin betiko onarpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean.

ERANSKINAK

EDATEKO URAREN HARGUNEAK GAUZATZEKO ARAU TEKNIKOAK, NEURGAILUAK ETA INSTALAZIO BEREZIAK

Edateko uraren hornidura eta/edo saneamendu harguneak eta neurgailu eta instalazio bereziak gauzatzerakoan, Eraikuntzako Kode Teknikoan eta Gipuzkoako Urak – Aguas S.A.ren Arautegi Teknikoan aurreikusitakoa bete beharko da.

Sare publiko ura erabiltzen duten hozte sistemak eta aire girotuko unitateak birzikulaziorako instalazio batez eta dagokion erretentzioa balbula batez ekipatu beharko dira.

Aipatutako arautegi horiek beteta, hargunea hartzeari ekingo zaio. Une horretatik aurrera ur hornidura ezarri ahal izango da, saneamenduko hargunea edo horren ordezko instalazioa egina badago betiere.

HONDAKIN UREN JATORRIAN OINARRITUZ ERABILTZAILE MOTEN SAILKAPENA

Erabiltzaileak hurrengo motetan sailkatzen dira:

A mota: ura bere etxerako bakarrik erabiltzen duena, merkataritza erabilera ezberdinera edo industriara zuzendu gabe, eta erabilera honekin ez du 500 m³/urte/etxebizitzako bolumena gainditu behar.

B mota: Etxebizitzak 500 m³/urteko/etxebizitzako baino kontsumo handiagoa dutenak eta erabiltzaileak merkataritzako, industriako edo beste jarduerekin 3.000 m³/urteko baino kontsumo txikiagoa dutenak eta 70 biztanle/baliokideen baino karga txikiagoarekin.

C mota: Ura merkatritzako edo industriako jardueretako erabiltzen duena 3000 m³/urteko baino kontsumo handiagoarekin edo ura udaleko ez diren beste baliabidetik erabiltzen dutenak edo 70 biztanle/baliokideen baino karga handiagoarekin.

Aurreko paragrafoan jarritako baldintzak betetzen ez dituenak, baina kolektoreetara eraso-isurketak sortzen dituen edo sortu ditzaken prozesuak badauzka edo metal astunak edo gai inhibitzaile bezela kalifikagarri daitezken beste elementu batzuk baduzka, arazketa prozesuetan ondorio kaltegarriak dituztelako.

KONTAGAILUEN FUNTZIONAMENDU EGOKIA EGAIZTATZEKO EGIN BEHARREKO LAN DESBERDINEN, ALTA ETA TITULAR ALDAKETEN PREZIOA

1.- Horniketa altak, kontagailu berri bat jartzea beharrezko dute. Prezioak B.E.Z. gabe.

DIAMETROA	€
15 mm bitarte	125,00
20 mm	155,56
25 mm	231,75
30 mm	281,49
40 mm	684,66
50 mm	983,08
65 mm	1.257,16
80 mm	1.545,00
100 mm	1.876,00

Alta berrietan, kontadorea, beti berria behar duena, Gipuzkoako Ura-ek jartzen ez badu, izen aldaketetan kobratzen den prezio berdina ezarriko da.

2.- Kontagailuaren egiaztapenak

Berrikuspena Entitate edo Laborategi Ofizialetan zeregin hauetarako behar bezala baimenduta dagoen, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoan metrologia kontrola burutzeko bitartekoak arautzen dituen otsailaren 27ko 38/2001 Dekretuak ezarritakoarekin bat datorren metrologiako edozein Entitate edo Laborategi Ofizialek egin ditzakete.

Egiaztapen gastuak dagokion Entitate edo Laborategi Ofizialak ezarriko ditu.

Egiaztapenatik kontagailua zuzen ez dabilela ateratzen bada, eskatzaileak ez du inongo kopururik ordainduko.

3.- Tituaritatearen aldaketa

Zerbitzuaren kontratuaren edozein kontzeptutan titularitatea aldatzeagatik, eskatzaileak honako hau ordainduko du:

Etxeko erabilerak:	15,90 €
Etxeko erabilerak ez direnak:	23,90 €
Nekazala:	15,90 €

ZERBITZUAREN PEZIOAK

1.- Prezioak 88. Artikuluaren arabera

URA (ADUKZIOA, TRATAMENDUA ETA BANAKETA)

EGUNEROKO KUOTAK

UR TRATATUA

Prezioak B.E.Z. gabe

Kuota kontsumoaren arabera (€/m³) 88.2 art.

Tarte bakoitzeko kontsumoa, 90 egunekoari dagokio.

ETXETIARRAK

Tarifa biztanle kopurua kontutan izan gabe:

30 m³ arte	0,624
30etik 90 m³ arte	0,761
90 m³ baino gehiago	0,905

Tarifa biztanle kopurua kontuan izanda:

110 litro/(biz/eg) arte	0,624

110etik 330 litro/(biz/eg)	0,761
330 m³ baino gehiago	0,905

NEKAZAL ETA ABELTZAIN

30 m³ arte	0,624
30etik 90 m³ arte	0,761
90 m³ baino gehiago	0,905

INDUSTRIALA, MERKATARITZA ETA BESTEAK

50 m³ arte	1,051
50etik 500 m³ arte	1,188
500 m³ baino gehiago	1.314

Kontagailuaren diametroaren arabera kuota: zent€/eg. 88.1 art.

	ETXETIARRAK	NEKAZAL ETA ABELTZAINZA	INDUSTRIALA, MERKATARITZ ETA BESTEAK
15 mm bitarte	8,175	8,175	14,306
20 mm	19,348	19,348	33,860
25 mm	30,232	30,232	52,907
30 mm	43,535	43,535	76,186
40 mm	77,395	77,395	135,441
50 mm	120,930	120,930	211,627
65 mm	204,372	204,372	357,652
80 mm	309,582	309,582	541,768
≥ 100 mm	483,721	483,721	846,513

Udaletako kontsumoa: %80ko hobaria. Ez da kuota finkorik ezarriko udal urharguneen kasuan.

Suteen aurkako hornidura:

Kuota kontsumoaren arabera (€/m³) 88.2 art: 1,051 €/m³.

Kontagailuaren diametroaren arabera kuota. 88.1 art.: 14,306 zent €/eg.

URA (ADUKZIOA, TRATAMENDUA ETA BANAKETA)

LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

EGUNEROKO KUOTAK

URA ALTAko INSTALAZIORIK GABE

Prezioak B.E.Z. gabe

Kuota kontsumoaren arabera (€/m³) 88.2 art.

Tarte bakoitzeko kontsumoa, 90 egunekoari dagokio.

ETXETIARRAK

Tarifa biztanle kopurua kontutan izan gabe:

30 m³ arte	0,476
30etik 90 m³ arte	0,581
90 m³ baino gehiago	0,690

Tarifa biztanle kopurua kontuan izanda:

110 litro/(biz/eg) arte	0,476
110etik 330 litro/(biz/eg)	0,581
330 m³ baino gehiago	0,690

NEKAZAL ETA ABELTZAIN

30 m³ arte	0,476
30etik 90 m³ arte	0,581
90 m³ baino gehiago	0,690

INDUSTRIALA, MERKATARITZA ETA BESTEAK

50 m³ arte	0,881
50etik 500 m³ arte	0,996
500 m³ baino gehiago	1,101

Kontagailuaren diametroaren arabera kuota: zent€/eg. 88.1 art.

	ETXETIARRAK	NEKAZAL ETA ABELTZAINZA	INDUSTRIALA, MERKATARITZ ETA BESTEAK
15 mm bitarte	7,175	7,175	12,556
20 mm	12,755	12,755	22,322
25 mm	19,931	19,931	34,879
30 mm	28,700	28,700	50,225
40 mm	51,023	51,023	89,290
50 mm	79,723	79,723	139,515
65 mm	134,732	134,732	235,782
80 mm	204,092	204,092	357,160
≥ 100 mm	318,893	318,893	558,063

Udaletako kontsumoa: %80ko hobaria. Ez da kuota finkorik ezarriko udal urharguneen kasuan.

Suteen aurkako hornidura:

Kuota kontsumoaren arabera (€/m³) 88.2 art: 0,881 €/m³.

Kontagailuaren diametroaren arabera kuota. 88.1 art.: 12,556 zent €/eg.

2.- Prezioak 89. art. arabera

SANEAMENDUA ETA ARAZKETA

EGUNEROKO KUOTAK

Prezioak B.E.Z. gabe

Kuota kontsumoaren arabera (€/m³) 88.2 art.

Tarte bakoitzeko kontsumoa, 90 egunekoari dagokio.

ETXETIARRAK

Tarifa biztanle kopurua kontutan izan gabe:

30 m³ arte	0,536
30etik 90 m³ arte	0,654

90 m³ baino gehiago	0,777

Tarifa biztanle kopurua kontuan izanda:

110 litro/(biz/eg) arte	0,536
110etik 330 litro/(biz/eg)	0,654
330 m³ baino gehiago	0,777

NEKAZAL ETA ABELTZAIN

30 m³ arte	0,536
30etik 90 m³ arte	0,654
90 m³ baino gehiago	0,777

INDUSTRIALA, MERKATARITZA ETA BESTEAK

50 m³ arte	0,901
50etik 500 m³ arte	1,018
500 m³ baino gehiago	1,128

Kontagailuaren diametroaren arabera kuota: zent€/eg. 89.1 art.

	ETXETIARRAK	NEKAZAL ETA ABELTZAINZA	INDUSTRIALA, MERKATARITZ ETA BESTEAK
15 mm bitarte	6.962	6,962	11,130
20 mm	16,477	16,477	26,342
25 mm	25,746	25,746	41,161
30 mm	37,075	37,075	59,271
40 mm	65,911	65,911	105,372
50 mm	102,986	102,986	164,643
65 mm	174,047	174,047	278,249
80 mm	263,645	263,645	421,489
≥ 100 mm	411,946	411,946	658,577

Udaletako kontsumoa: %80ko hobaria. Ez da kuota finkorik ezarriko udal urharguneen kasuan.

Suteen aurkako hornidura:

Kuota kontsumoaren arabera (€/m³) 88.2 art: 0,901 €/m³.

Kontagailuaren diametroaren arabera kuota. 89.1 art.: 11,130 zent €/eg.

3.- Prezioak 90. art. arabera

HORNIDURA ETA SANEAMENDUKO AZPIEGITUREN FINANTZAKETA PLANA

EGUNEROKO KUOTAK

Prezioak B.E.Z. gabe

Kuota kontsumoaren arabera (€/m³) 88.2 art.

Tarte bakoitzeko kontsumoa, 90 egunekoari dagokio.

ETXETIARRAK

Tarifa biztanle kopurua kontutan izan gabe:

30 m³ arte	0,232
30etik 90 m³ arte	0,283
90 m³ baino gehiago	0,336

Tarifa biztanle kopurua kontuan izanda:

110 litro/(biz/eg) arte	0,232
110etik 330 litro/(biz/eg)	0,283
330 m³ baino gehiago	0,336

NEKAZAL ETA ABELTZAIN

30 m³ arte	0,232
30etik 90 m³ arte	0,283
90 m³ baino gehiago	0,336

INDUSTRIALA, MERKATARITZA ETA BESTEAK

50 m³ arte	0,389
50etik 500 m³ arte	0,440

500 m³ baino gehiago 0,486

Kontagailuaren diametroaren arabera kuota: zent€/eg. 90.1 art.

	ETXETIARRAK	NEKAZAL ETA ABELTZAINZA	INDUSTRIALA, MERKATARITZ ETA BESTEAK
15 mm bitarte	2,968	2,968	5,205
20 mm	7,024	7,024	12,320
25 mm	10,975	10,975	19,250
30 mm	15,804	15,804	27,720
40 mm	28,096	28,096	49,280
50 mm	43,900	43,900	77,000
65 mm	74,191	74,191	130,131
80 mm	112,384	112,384	197,122
≥ 100 mm	175,600	175,600	308,003

Udaletako kontsumoa: %80ko hobaria. Ez da kuota finkorik ezarriko udal urharguneen kasuan.

Suteen aurkako hornidura:

Kuota kontsumoaren arabera (€/m³) 90.2 art: 0,389 €/m³.

Kontagailuaren diametroaren arabera kuota. 90.1 art.: 5,205 zent €/eg.

BESTELAKO ZERBITZU ETA PREZIO PUBLIKOAK

Fakturazioa gure hoditeriak hausteagatik.

Pertsona edo enpresaren batek Hornidura Sarea hausten badu, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa S.A.-k irizpide hauen arabera egingo du fakturazioa:

Alde batetik fakturatuko dira hausturan bertan galdutako ur bolumena eta ura ematerakoan eta Hornidura Sarea garbitzeko erabiltzen den ur bolumena. Kostu hori kalkulatzeko, eragiketa hau egingo da; aipatutako ur bolumenak bider ezarritako prezioa.

- Bolumenak kalkulatzeko, kontuan izango da hodiaren diametroa eta, beraz, hodiak m³/h-tan hornitu dezakeen emaria (1 m/seg-ko abiadura suposatuz) bider kalkulatutako denbora.

- M³-aren prezioa izango da Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa S.A.ren uraren ziklo integrala arautzen duen Ordenantza honetako “Bestelako zerbitzu eta prezio publikoak” atalean indarrean dagoena.

Bestetik, kalkulatuko da hausturak abonatuengan izandako eragina eta hausturaren egileak izandako zabarkeria maila. Kostea kalkulatzeko, biderkatu egingo dira hausturak eragindako abonatu kopurua, urik gabe egondako denbora eta hausturaren egilearen zabarkeria maila, eta emaitza izango da hausturaren eraginez fakturatu beharreko zenbatekoa:

.- Hausturak eragin dien abonatu kopurua kalkulatzeko, ur ihesa konpontzeko egin den/behar izan den ur mozketa hartuko da kontuan.

.- Urik gabeko denbora orduka kalkulatuko da.

.- Zabarkeria maial 0-6 bitarteko koefiziente baten bidez adieraziko da eta, hori kalkulatzeko, ondorengo galdera hauei emandako Ezezko erantzun kopurua hartuko da kontuan:

* Eskatu dituztuen kaltetutako sarearen kokapen planoak?

* Eskatu diguzue gure odien egoera “ins situ” markatzeko?

* Abisatu diguzue zer egin behar zenute lanean hasi aurretik?

* Jarraitu dituzue gure instrukzioak?

* Aurreikusi duzue hausturaren bat gertatuz gero hodia matrial eta petsonal homologatuen bidez konpontzea?

* Behin hodia konponduta, behar bezala egin da konponketa?

Azkenik, kostu osoari gehitu beharko zaizkio Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.k haustura konpontzeko erabili behar izan dituen materialen eta pertsonalaren kostuak, prezio hauek kontuan izanik:

LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

Alta eta Behe-mailako prezioak

Programatutako irteera	171,50 €
Larrialdiko irteera	285,60 €
Aparteko irteera, hausturetan zuntz-zementua egoteagatik: kabina, hesia, zuntz-zementua manipulatzea, kentzea eta kudeatzea	1.213,83 €
Pertsona eta tresnen garraioa	54,50 €/ordua
Industria makina eta/edo obra zibila, materialak: Tarifa *	1,15
Ur-jarioak:	1,35 €/m³
Teleaginte kablearen ekometria	515,00 €
Teleaginte seinalearen birsortzailea	1.470,00 €
Sarearen argibideak	45,00 € + 2 €/Ha
Ofizial Prezioa. Ohizko lan-ordutegia	46,70 €/ord
Enkargatua. Ohizko lan-ordutegia	65,60 €/ord
Antolakuntza buru/arduradun. Ohizko lan-ordutegia	105,10 €/ord
Teknikaria. Ohizko lan-ordutegia	157,50 €/ord

Behe-mailako prezioak

Ofizial Prezioa. Ohizko lan-ordutegia	467,70 €/ord
Udala	40,47 €/ord
Langile espezialista. Ohizko lan-ordutegia	42,10 €/ord
Udala	36,52 €/ord
Enkargatua. Ohizko lan-ordutegia	65,60 €/ord
Udala	56,91 €/ord
Antolakuntza buru/Arduradun. Ohizko lan-ordutegia	105,10 €/ord
Udala	91,14 €/ord
Teknikaria. Ohizko lan-ordutegia	157,50 €/ord
Udala	136,60 €/ord
Saneamendu kamioia. Ohizko lan-ordutegia	186,00 €/ord
Makina libratzailea. Ohizko lan ordutegia	165,30 €/ord
Ureztatze-zutabearen alokairua. Ohizko lan-ordutegia	7,10 €/ord
Ur-jarioak	1,35 €/m³
Ohizko lanaldia. Astelehenetik ostiralera	08:30-18:00
Ohizko lanalditik kanpo astelehenetik ostiralera. Ohizko lanaldi prezioa	1,4 *
Larunbatak, igandeak eta jai-egunak. Ohizko lanaldi prezioa	1,7 *

LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

Udaletxeari Behemailan Cia ez diren Abonatuetan aplikatu beharreko prezioak

Behemaila (Baliatza, kudea. Soilik) Hiruhila. Fink	1,492 €/baliatzaile
Kontsumoa	0,1292 €/m³
Behemaila (Baliatza.+mant) Hiruhila. Fin.	4,720 €/baliatzaile
Kontsumoa	0,380 €/m³
Altako Prezioak	
Edateko Ura: Ur biltegiarekin	0,7538 €/m³
Ur Bilt. Gabe	0,7298 €/m³
Ur gordina: Ur biltegiarekin	0,6094 €/m³
Ur Bilt. Gabe	0,5854 €/m³
Kontsortziatu gabeko Udalak, dena	0,471 €/m³-ean gehittuta

Baimena, kolektorean Konexioak, Fosa septikoak eta beste isurki batzuk

Hobi septikoaren arazketa eta beste isurketak

P= 109,00 € + K*N*Ps

K: diluzioaren koefizientea

N: Metrokubikoak

Ps: 0,522 €/m³

Arazketaren Prezioa

I= K*V*(Ps+Pc)

I: urtean ordaindu beharrekoa

K: kodefiziente zuzentzailea

V: kopurua m³/urt

Ps: arazketaren pezioa: 0,522 €/m³

Pc: finatziaketa kanonaren prezioa: 0,471 €/m³

I= K*V*(Ps+Pc)

I: urtean ordaindu beharrekoa

K: kodefiziente zuzentzailea

V: kopurua m³/urt

Ps: arazketaren pezioa: 0,522 €/m³

Pc: finatziaketa kanonaren prezioa: 0,471 €/m³

Kolektoretara baimen/lotura 2021 urtea

I= 7,921 * V

V: kopurua m³/urt
Isurketa baimena gainditze prezioa
Psup=Ps*Vd*D((K1+K2+K3+.. + Kn)-1)
Ps = Arazketaren prezioa: 0,522 €/m³
Vd= Baimendutako kopurua
D= Gainditze egunak
K= parametro bakoitzeko gainditzeko kopuruak beheko muga)
Psup= Ps*Vd*D*1000 debekatutako isurketetan
Uraren Analisien Prezioak
Uredangarria
Analisien prezioak ur kontinentaletan

ANALISIS MOTA	PREZIOA €
SAREAREN KONTROLA	112,00
ETAP IRTEERA KONTROLA	210,77
OSOA	1.614,44
HARTUNEA	546,03
ITURRIA	234,85
PARAMETROAK	**PREZIOA €**
Aerobias 22ºC	28,20
Aerobias 37ºC	28,20
Aluminioa	28,20
Amonioa	28,20
Antimonioa	46,39
Arsenikoa	46,39
Bikarbonatoak	28,20
Boroa	28,21
Bromatoa	28,21
Kadmioa	31,34
Zianuroa	47,03
Kloroa	9,13

Kloruroak	28,20
Klostidium perf	28,20
Kobrea	31,34
Coeficiente de absorción espectral	15,68
Koliforme guztiak	28,20
Kolorea	15,67
Konduktibitatea	10,21
Kromoa	31,34
Gogortasuna	56,41
E. Coli	28,20
Enterokokoak	28,20
Fluoruroak	27,19
Fosforo totala	39,20
Burnia	28,20
Indice de fenol	30,72
Indice de langelier	94,82
Legionella	61,27
Magnesioa	28,20
Manganesoa	28,20
Merkurioa	54,45
Microcistina Intracelular	30,72
Microcistina Libre	30,72
Nikela	31,34
Nitratoak	28,20
Nitritoak	28,20
Ortofosfatoak	28,20
Partikulak	28,20
PH	10,21
Pigmentos Fotosintéticos	30,72
Plomoa	31,34
Potasioa	28,20
Residuo Seco	22,01
Salmonella	61,27
Selenioa	46,39
Silizea	31,35
Sodioa	28,20
Sulfatoak	28,20
Tensioactivos aniónicos	30,72
TOC	62,66
Transmitantzia	16,24
Trialometanoak	540,42
Turbideza	10,21
Zink	28,20

Aldrin

Atrazina		
Benzo (a) pireno		
Benzo (b) fluoranteno		
Benzo (g,h,i) perileno		
Benzo (k) fluoranteno		
Beta Endosulfan		
DDD		
DDE		
DDT		
Dieldrin	PHAs	529,83
Endosulfan Alpha		
Edonsulfan Sulfato		
Endrin		
HCH Alpha Isomero		
HCH Beta Isomero		
HCH Delta Isomero		
HCH Gamma Isomero		
Heptacloro		
Heptacloro epóxido		
Indeno (1,2,3-Cd)		
Pireno		
Prometrina		
Secbumetón		
Simazina		
Terbutilazina		
Terbutrina		

HONDAKIN-URA

PARAMETROAK	**PREZIOA €**
Olio eta koipeak	89,44
Aluminioa	31,34
Arsenikoa	31,34
Kadmioa	31,34
Zianuro libre	47,03
Zianuro guztira	80,17
Kloro librea	9,13
Kloruroak	28,20
Kobrea	31,34
Kolorea	15,67
Konduktibitatea	10,21
Kromo guztira	31,34
Kromo VI	31,34
DBO5	39,09
Digestioa	33,14

DQO	33,14
Estainoa	46,39
Fenoleak	31,34
Fluoruroak	28,20
Fosforo guztira	28,20
Hidrocarburoak guztira	89,43
Burnia	31,34
Magnesioa	27,65
Manganesoa	31,34
Merkurioa	45,48
Nikela	31,34
Nitratoa	28,20
Nitritoak	30,72
N-NH3	28,20
NTK	49,63
N-guztira	81,50
Ortofosfatoak	28,20
PH	10,21
Zillarra	31,34
Plomoa	31,34
Selenioa	45,48
Sólidos en suspensión	22,01
Sulfuroak	30,72
Tensioactivos catiónicos	30,72
Tensioactivos no iónicos	30,72
Tensoactivos aniónicos	35,65
Toxizitatea	136,21
Turbideza	10,21
Zink	31,34
Bost metalen azterketa: Burdina, Zinka, Kromo osoa, Kobrea eta Nikela	117,53
Hamar metalen azterketa: Burdina, Zinka, Kromo osoa, Kobrea, Nikela, Kadmioa, Beruna, Manganesoa, Aluminioa eta Fosforoa	166,60

Hirugarrena.- Kontsumo-tarteak etxebizitza bakoitzean erroldatutako pertsona kopuruaren menpekoan izango direla eta pertsonarik erroldatuta ez dagoen etxebizitzen kasuan, kontsumo guztiari aplikatuko zaion prezioa, goiko tartekoa izango dela.

Laugarrena.- Gipuzkoako Uren Partzuergoak zehaztutako tasak onartzea, 2021eko apirilaren 1etik aurrera aplikatzeko, eta Partzuergoari, tasak eguneratzeko baimena eman, egitura aldatu gabe, 2/2004 Foru Arauko 7.2 artikuluak dioenaren arabera.

Bostgarrena.- Kudeaketan elkar laguntzeko hitzarmen testua onartzea, eta horri jarraituz, Gipuzkoako Uren Partzuergoarengan utzi, ziklo integralaren, zerga, tasa eta prezio publikoen likidazioa, kudeaketa eta dirubilketa osoa.

2021eko apirilaren 1etik aurrera, uraren kudeaketaren ardurak dakarkin igoerak, era honetan laguntzea:

2021ean, % 75
2022an, % 50
2023an, % 25
2024 urtetik aurrera ez da hobariarik aplikatuko.

Seigarrena.- Lizartzako Alkate-Lehendakariari zerbitzuaren kudeaketarako Gipuzkoako Uren Partzuergoarekin sinatuko den hitzarmena bideratu eta formalizatzeko ahalmena eman.

Zazpigarrena.- Hartutako erabakiak jendaurrean zabaldu Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko Iragarki taularen bidea, 30 laneguneko epean, interesatuek espedientea aztertu eta nahi dituzten, ohar, erreklamazio, alegazio eta iradokizunak aurkeztu ahal ditzaten.

Zortzigarrena.- Jendaurrean zabaldutako epean alegaziorik aurkeztuko ez balitz, hartutako erabakiak besterik gabe behin betikotzat joko dira, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

LIZARTZAKO UDALA ETA GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAren ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

Idazkaritzak 2021eko urtarrilaren 11an egindako txostena ikusi da, Lizartzako Udala eta Gipuzkoako Ur-Kontsortzioaren artean, elkarlanean, Uraren Ziklo Integrala Kudeatzeko Gomendioko lankidetzarako hitzarmen-administratiboa onartzeko aplika daitekeen legediari eta jarraitu beharreko prozedurari buruzkoa.

Lankidetzarako hitzarmenaren negoziatutako testua 2021eko urtarrilaren 8an jaso da udalean.

Legeak araututako izapideak egin ondoren, eta 2021eko urtarrilaren 13ko idazkaritzaren txostena, hau da, hitzarmena zuzenbidearekin bat datorrela egiaztatu eta, beraz, ebazpen-proposamena egiten duen txostena ikusi ondoren, udalbatzaren osoko bilkurari proposatzen zaio, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen

oinarriak arautzekoak, 47.2.h) artikuluan xedatutakoaren arabera, gehiengo osoz erabaki hau hartzea:

ERABAKIA

LEHENA. Lizartzako Udalak eta Gipuzkoako Ur-Kontsortzioaren artean, elkarlanean, Uraren Ziklo Integrala Kudeatzeko Gomendioko lankidetzarako administrazio-hitzarmenaren testua onartzea, txostenean zehazten diren baldintzetan:

URAREN ZIKLO INTEGRALA KUDEATZEKO GOMENDIOKO HITZARMENA

Lizartzan, 2021eko …..

Alde batetik, Olatz Peon Ormazabal andrea, duen herri-kargua dela eta bere xehetasun pertsonalak agertzeko beharrik ez duena.

Eta bestetik, Iñaki Azpiroz Beldarrain jauna, duen herri-kargua dela eta bere xehetasun pertsonalak agertzeko beharrik ez duena.

ESKU HARTZEN DUTE

Olatz Peon Ormazabal andrea, GIPUZKOAKO UR-KONTSORTZIOAren izenean, joan den 1998ko otsailaren 20ko GAOean argitaratu ziren erakundearen Estatutuek diotenaren arabera duen ordezkaritza erabiliz.

Iñaki Azpiroz Beldarrain Jn, Lizartzako Udal Gorenaren izenean, Alkate-Lehendakaria izanik eta joan den 2021eko urtarrilaren 18an egin zen Udal-Korporazioaren Osoko Bilkurak hartutako erabakiaren arabera egintza honetarako baimendua izan denak. Aipatutako erabakiaren ziurtagiria Udaleko Idazkariak izenpetuta gomendio honi eransten zaio.

XEHETASUNAK

Lehenengo.- Gipuzkoako Ur-KontsortzioaGipuzkoako hainbat udalek horien artean LIZARTZA eratu duten elkarte-oinarria duen zuzenbide publikoko erakundea da. Honako hau da erakunde horren xedea: *“sare primarioetan saneamendua eta ura hornitzeko azpiegituraren ezarrera eta ustiapena eta dagozkion zerbitzuak prestatzea, guzti hori baldintza egokietan eta indarrean dagoen araudiaren arabera.”* Estatutuetako xedapen horren arabera, Kontsortzioak, LIZARTZAko udalerrian saneamendua eta ur-horniduraren “goiko” sarearen zerbitzu publikoa kudeatzen du.

Bigarren.- LIZARTZAko udalak interes handia du URAREN ZIKLO INTEGRALAREN kudeaketa, bi sareen kudeaketa sartuz, “goia” eta “behea”, baita beharrezko diren inbertsioak egitea ere. GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOREN esku uztea.

Era berean, Udal Erregimeneko Oinarrien 7/1985 Legeak, Udalek, horrela nahi dutenean, Hornidurako eta Saneamenduko Zerbitzua modu Kontsortziatuan eman dezaketela ezartzen du.

Bestalde, GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA toki-erakunde inpropioa den aldetik, zerbitzu publikoak prestatzeko modu desberdinak erabil ditzake, beti ere, lege xedapenen arabera Toki Jaurbidearen gaietan indarrean dauden lege-xedapenen eraberritutako Testuaren 110.5 art.- eta estatutuetako xedapenen arabera 9. art.. Zentzu horretan eta bere zerbitzuak kudeatzeko GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAK kapital erabat publikoaz osatuta dagoen sozietate anonimoa du eratua: GIPUZKOAKO URAK E.A.

Beraz, beharrezko lege eta jardutze-ahalmena ezagutzen diote elkarri eta GOMENDIO hau izenpetzea erabaki dute ondorengo atalen arabera.

ATALAK

Lehenengoa.- LIZARTZAko udalak, gomendio honen ondorioz eta Udal Erregimeneko Oinarrien 7/1985 Legearen arabera, URAREN ZIKLO INTEGRALAREN kudeaketa GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN esku uztea erabakitzen du, honek hornidura eta saneamenduko “goiko” eta “beheko” sareen kudeaketa barnean hartzen ditu, baita beharrezko diren inbertsioak egitea ere. Horretarako, LIZARTZAko Udalak, GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOARI emakida, emarien ustiapenak, azterlanak, proiektuak, sareak eta instalazioak eta kontsortziotatutako zerbitzuak emateko gainontzeko baliabide guztiak ematea erabakitzen du.

Bigarrena.- LIZARTZAko Udalak, zuzenbide-ordenamenduak horretarako bidea ematen duen heinean, berak dituen aginpide, eskuduntza, eskumen, ahalmen, eskubide eta betebehar guztiak, zerbitzuak eta bere xede eta jomuga diren helburuak ematearekin zerikusia dutenak GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN esku uztea erabakitzen du. Ur zerbitzuko abonatuek neurgailuak ez badituzte, beren kontura jarri beharko dituzte, nahiz eta Kontsortzioak horiek jartzea erraztu dezakeen, beti ere abonatuaren kontura.

Hirugarrena.- Lizartzako Udalak, GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAK aurkeztutako azterlan ekonomikoa onartzea erabakitzen du, hitzarmen honi erantsitakoa.

LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

Laugarrena.- gipuzkoako ur kontsortzioak lizartzaKO UDALERRIKO URAREN ZIKLO INTEGRALAREN kudeaketa 2021eko apirilaren 1etik aurrera bere gain hartuko du.

Bosgarrena.- Gomendio honek gutxienez 10 urteko iraupena izango du. Epe hori pasa ondoren, Udalak erabaki dezake, bere kasuan, zuzenbide-ordenamenduak une bakoitzean bide ematen dion heinean beste edozein modutara zerbitzua ematea, horretarako dagozkion erabakiak hartuz eta indarrean dagoen legediak agintzen dizkion urratsak emanez, GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOARI sei hilabete LEHENAGO jakin araziz.

Behin hasierako 10 urteko epealdia pasa ondoren, aurreko zatian aurreikusitako berarizko uko egitea ematen ez bada, gomendioa luzatuta ulertuko da Udalak, bere kasuan, zuzenbide-juridikoak ematen dizkion eskumenaz baliatuz, zerbitzua beste modu batetara ematea erabakitzen duen arte. Hala eta guztiz ere, Udalak, bere kasuan, zerbitzua kontsortziatu eran ematea deuseztea erabakiko balu, deuseztapena baino lehen, GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOARI ordaindu beharko zaio, zenbatekoa kalkulatuko da hartuaz Kontsortzioak udalerrian egindako inbertsioak eta berrikuntzak eta LIZARTZAko Udalari emandako kopuruak ken Kontsortzioak pilatutako kopuruak LIZARTZAn inbertsioak eta berrikuntzak egiteko uraren fakturan kobratutakoaren bidez. Kontrakoa gertatuko balitz, aipatutako kopurua GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAK LIZARTZAko Udalari ordaindu beharko dio.

Seigarrena.- Zerbitzuaren tasak eta prezioak, baita udaleko abonatuentzako baliozko ordenantzak ere, hasiera batean, Kontsortzioa osatzen duten udal bakoitzak onartu beharko ditu. Hala ere gomendio honen bidez GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN Batzar Nagusiaren esku utzi daiteke, aipatutako tasen urteko gaurkotze ahalmena, tarifen egitura aldatu gabe.

Zazpigarrrena.- GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAK LIZARTZAko Udalari bermatzen dio, gomendio honen bitartez bere gain hartutako kudeaketagatik abonatuei eta bezeroei doakien edozein informazioari buruzko konfidentzialtasuna eta isilpekotasuna bere langileen gordeko dutela, eta batez ere, Norberaren Datuak Babesteko, abenduaren 13ko 15/1999 Legeak babestukoak direnean, datu horietara zuzenki edo zeharka sarbidea dutenean edo kontratatutako zerbitzuaren ondorioz ezagutzen dituztenean, zen gomendio honek irauten duen bitartean zein hitzarmena bukatutakoan.

Zortzigarrena.- GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAK urtebeteko epean Irunzubi industrialdeko saneamendua konponduko du, baldin eta Ur Agentziak ez du Lizartzako araztegirako edo Tolosako kolektorearako konexioa exijitzen.

Bederatzigarrena.- Gomendioak izaera administratiboa du eta haren sorrera, ulerkuntza, aldaketa edo suntsiarazpenaren inguruan sor litezkeen arazoak administrazioarekiko auzietako jurisdikzioaren aurrean konponduko dira.

Eta guztiarekin bat datozela agertzeko, Gomendio hau izenpetu egiten dute, bi aletan eta ondorio batetarako esandako egunean eta tokian.

I ERASKINA

LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

Municipio		TIPO	LIZARTZA
m3 baja/año		354.451	37.307
Habitantes		4.627	602

Tipo de material	Factor	ml	ml
Hierro Colado	100	683	100
Fibrocemento	90	5.400	1.200
Hierro Galvanizado	60	1.361	1.500
Polietileno Viejo	60	4.437	3.400
Polietileno Nuevo (ISO)	5	4.680	3.500
Fundición Ductil	5	5.376	500
Otros Materiales	90	2.074	500
Total	**TOTAL mts**	**24.010**	**10.700**

Compromiso de renovación en 10 años	%	ml	ml
Hierro Colado	70,1%	478	70
Fibrocemento	63,1%	3.406	757
Hierro Galvanizado	42,0%	572	631
Polietileno Viejo	42,0%	1.865	1.429
Polietileno Nuevo (ISO)	3,5%	164	123
Fundición Ductil	3,5%	188	18
Otros Materiales	63,1%	1.308	315
	TOTAL mts	**7.982**	**3.342**

	P.U.	Euros	Euros (IVA NO incl
Coste de la renovación:			
(171,00 euros/ml + IVA)	171,00	1.364.922,63	571.557,95
Rec. renovaciones en 10 años	0,404	1.431.980,02	150.720,28
Diferencia: Recaudación-Coste		67.057,39	-420.837,67
Límite de pago al Ayto.	0,102	361.539,51	38.053,14

INVERSION EN 10 AÑOS (IVA incluido)	1.583.310,25	691.585
INVERSION GARAANTIZADA EN 10 AÑOS (IVA incluido)		182.372

Estas cantidades se actualizan anualmente

PAGO EN 10 AÑOS (IVA incluido)	77.786,57	0

Nota: El resultado del compromiso de renovación en 10 años es orientativo, y puede verse alterado por el ritmo de incorporación, al CICLO INTEGRAL DEL AGUA, de los diferentes municipios consorciados. En cualquier caso, queda garantizada la cantidad de 0,404 €/m3 a destinar a la citada renovación de la redes.

Behin betiko azterketa lehen urtean egingo da

BIGARRENA. Erabaki hau hitzarmenaren testuarekin batera Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 8.2. artikuluan xedatzen duenaren arabera.

HIRUGARRENA. Alkateak, udalbatza honetako presidente den aldetik eta udal honen izenean, aipatutako lankidetzarako hitzarmena eta hori gauzatzeko behar diren dokumentu guztiak izenpetzeko ahalmena izatea, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzekoak, 21.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera.

LAUGARRENA.- <u>HONDAKIN BILKETA ZERBITZUAREN TASEN KOBRANTZA GESTIOA, AGUAS DE GIPUZKOA-GIPUZKOAKO URAK S.A.ren ESKU UZTEA</u>

Aurreko puntuan onartutako arabera, Uraren Ziklo Integralaren Kudeaketa, Aguas de Gipuzkoa-Gipuzkoako Urak S.A.ren esku uztea erabaki zen.

Horren arabera, baita ere, Hondakin Bilketa Zerbitzuaren Tasen Kobrantza Gestioa, Aguas de Gipuzkoa-Gipuzkoako Urak S.A.ren esku uztea proposatzen da.

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua da.

BOSGARRENA.- <u>LIZARTZAN, ARGITERIA PUBLIKOAREN LUMINARIAK HORNITZEA ETA MUNTATZEA. HORNIDURA KONTRATUAREN BALDINTZA TEKNIKO ETA ADMINISTRATIBOEN ONARPENA</u>

Alkatetzak, 2021eko urtarrilaren 4ko ebazpena eman zen, Lizartzan, Argiteria Publikoaren Luminariak Hornitzea eta Muntatzea hornidura kontratatzeko espedientea irekitzea agintzen zuena. Espedientean badaude kontratatu beharra zuritzen duen txostena, eta administrazio-klausula berezien nahiz preskripzio teknikoen agiriak.

Halaber, espedientean kreditu nahikorik badagoen ziurtagiria jaso da, 2021/01 zenbakiko kreditu-gehigarraik) 65.168,25 €-an, hain zuzen ere, lizitazioan gehienez dagoen aurrekontua.

Kontratua esleitzeko moduari eta prozedurari dagokienez, SPKLTBko 150.3.f) artikuluan ezarri denari jarraituta, prozedura irekia erabiliko da, esleitzeko hainbat irizpiderekin.

Aurrekoa jakinda, eta indarreko legeriak ematen dituen eskumenak baliatuta, bereziki, SPKLTBk Bigarren Xedapen Gehigarrian ematen dituenak, hurrengo erabakia hartzea proposatu da; Udal Batzarrak du eskumena.

ERABAKIA

LEHENENGOA.- Lizartzan, Argiteria Publikoaren Luminariak Hornitzea eta Muntatzea hornidura kontratatzeko espedientea onestea, eta, hartara, administrazio-klausula berezien eta preskripzio teknikoen agiriak onestea, kontratazioa arautuko baitute.

BIGARRENA.- 65.168,25 €-ko gastua baimentzea, indarreko udal aurrekontuaren 1.0000.601.165.00.01.2021 partidan egoztekoa.

HIRUGARRENA.- Esleipen prozedura irekitzea; hain zuzen ere, prozedura irekiaren bidez, hainbat esleipen-irizpide kontuan hartuta eta izapidetze arruntarekin bideratuko dena. Hori, SPKLTBko 150.3.f) artikuluan xedatu denarekin bat etorriz.

LAUGARRENA.- Lizitazioaren iragarkia, kontratatzailearen Profilean argitaratzea, eskaintzak eurkezteko epea irekitze aldera.

BOSGARRENA.- Alkatetzarei agintzea nahitaezko izapideak buru ditzala kontratua eslei dadin.

6.- <u>MOZIOAK</u>

MENDEBALDEKO SAHARAKO SU-ETENAREN AMAIERAREN AURREAN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA EGITEKO PROPOSAMENA

2020ko azaroaren 13an, Marokoko Indar Armatuek nahita urratu zuten 1991tik indarrean dagoen Marokoko Erresumaren eta Fronte Polisarioaren arteko Su Eten Akordioa.

Marokoko Erresumak Guerguerateko legez kanpoko pasabidera indar militarrak bidali zituen, duela lau astetik eremu horretan manifestazioak egiten ari ziren saharar herritarrak erreprimitzera.

Marokok 2001ean ireki zuen pasabide hori, Nazioarteko Zuzenbidea urratuz. Nazio Batuen Bake Akordioak (1988) eta Marokoren eta Fronte Polisarioaren arteko akordio militarrek Marokoko harresi militarrean pasabideak irekitzea debekatzen dute.

Indar marokoarren erasoaldiak eta Fronte Polisarioak saharar populazio zibilaren defentsan emandako erantzun legitimoak harresian zehar hainbat liskar eragin ditu. Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoko Presidenteak, adierazpen baten bitartez amaitutzat eman du Fronte Polisarioak eta Marokoko Erresumak 1991n sinatutako su-eten konpromisoa.

Gertakari horien aurrean, Lizartzako Udalak, Sahara Euskadi Mugimenduarekin eta Euskadiko Fronte Polisarioaren Ordezkaritzarekin batera:

1.- BERRESTEN DUGU zalantzarik gabeko elkartasuna diogula saharar herriaren eta haren legezko ordezkari Fronte Polisarioaren borrokari.

2.- Marokoko Erresumari EGOZTEN DIOGU 1991n Su-Etena apurtu izana, eta sortu den eta Magrebeko eskualde osora zabal daitekeen ezegonkortasunaren erantzunkizuna.

3.- MINURSOri eta Nazio Batuei eremuan segurtasuna eta saharrarren giza eskubideen zaintza berma dezatela ESKATZEN DIEGU; eta, besterik gabe, autodeterminazio-erreferendumaren bidez, Mendebaldeko Saharako gatazkaren konponbide bideakoa eta behin betikoa susta dezatela.

4.- Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordeari Mendebaldeko Saharan gertatzen den guztiarengatik dituen erantzukizunak bere gain har ditzala ESKATZEN DIOGU; izan ere, Lurralde Ez-autonomoa da, Marokok legez kanpo okupatua, NBEren agindupean, eta gatazkan dauden bi aldeak Genevako Hitzarmenaren sinatzaileak dira.

5.- Espainiako gobernuari Mendebaldeko Sahara “de iure” administratzen duen potentzia gisa duen erantzukizuna bere gain har dezala EXIJITZEN DIOGU; eta horren arabera joka dezala, autodeterminazio-erreferendumaren antolaketan eta Saharako biztanleria zibilaren babesean parte aktiboa izanik.

6.- Sahara Euskadi Mugimenduak Fronte Polisarioaren Ordezkaritzarekin batera Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa babesteko deitzen dituen mobilizazioetan parte hartzera GONBIDATZEN ditugu euskal herritarrak.

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

ZAZPIGARRENA.- <u>BESTELAKOAK</u>

LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

2021eko LANGILEEN ORDAINSARIEN IGOERA

Joan den 2020/12/31n, Estatuko 2021erako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 11/2020 Legea argitaratu zen BOEn.

Lege horrek, III. tituluko I. kapituluan, sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuak arautzen ditu, eta, zehazki, 18. artikuluan, 2021eko ekitaldirako ordainsari-igoeren mugei heltzen die, eta honako hau arautzen du:

18. artikulua. Jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa, sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuen arloan.

(…) Bi. 2021. urtean, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsariek ezin izango dute ehuneko 0,9ko igoera baino handiagoa izan 2020ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, bai langile kopuruari, bai antzinatasunari dagokienez, alderaketaren bi aldietarako homogeneotasuna mantenduz. Gizarte-ekintzako gastuak, oro har, ezin izango dira handitu 2020koen aldean. Horri dagokionez, gizarte-ekintzako gastuak egindako lanagatiko kontraprestazioez bestelako onurak, osagarriak edo hobekuntzak direla jotzen da, sektore publikoaren zerbitzura dauden langile horien inguruabar pertsonalen ondoriozko premia jakin batzuk asetzea helburu dutenak.

Aurrekoa ikusita, abenduaren 30eko 11/2020 Legea indarrean sartu ondoren, eta Eudelek aurreko ekitaldietako ordainsari-igoerei dagokienez egin duen bezala, egin ditzakeen interpretazioak argitze aldera, egokitzat jotzen da euskal udalei honako hau egitea:

GOMENDIOA

11/2020 Legearen 18 Bi artikuluaren edukiari dagokionez, Eudelek gomendatzen du sektore publikoko langileen ordainsariak handitzea, 2021/01/01etik aurrerako ondorioekin, legez onartutako gehienekoa, hau da, 2020ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko **% 0,9**, konparazioaren bi aldietarako, bai langile kopuruari, bai antzinatasunari dagokionez, homogeneotasuna mantenduz.

Gomendio horren bidez, Eudelek lege-agindu horren irismen juridikoa argitu nahi du, eta horrek guztiak negoziazio kolektiboaren esparruan etorkizunean aurrera egiteko bidea erraztuko duelakoan, UDALHITZ Akordio arautzaile berri bat lortu ahal izateko.

LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

Era berean, EUDELek berretsi du garrantzitsua dela "UDALHITZ 2008-2010 Akordioa" bere terminoetan betetzea, lortutako akordioak benetan betetzean baitago haren berme nagusia, eta, gainera, sektoreko akordio berri bat lortzeko legitimazio gisa balio du. Ildo horretan, gaur egungo UDALHITZ 2008-2010 betetzeak izan ditzakeen hutsuneak konpontzeko tresnak, azken zirkularretan gogorarazi dizuegun bezala, erakunde bakoitzean gaitutako "jarraipen-mahaiak" izan beharko luke. Gogorarazten dizuegu mahai hauen xedea dela, soil-soilik, egungo UDALHITZ 2008-2010 Akordioan gerta daitezkeen balizko ez-betetze puntualak konpontzeko akordioak erraztea, eta ez dutela ireki behar kanpoko gaiei buruzko edozein negoziazio-prozesu, zeinaren aplikazio-eremua EUDELen eta sindikatuen arteko UDALHITZ Negoziazio Mahai Orokorrean dagoen.

Eta beste gairik ezean, alkateak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko 20:00tan, eta nik, idazkari naizen aldetik, horren fede eman dut.

ALKATEAK
Izpta: Iñaki Azpiroz Beldarrain

IDAZKARI-KONTU HARTZAILEAK
Izpta: Ana Jesus Zabala Garmendia